

uk

171. zenbakia / 2010eko martxoaren 8a



Getxoko leku izenak ezagutu, ikasi



Ibilbide Toponimikoak 2010

Zelan deitzen da toki hau? Zer esan nahi du horrek? Zergatik deitzen da hau horrela? Ezagutzen dituzu Getxoko toki izenak?

Udaberri honetan, 12 ibilbidetan, ezagutu Getxoko toponimia.

Martxoak 17	Asteazkena	18:00	Santa Ana-Romo-Neguri-Aiboa	3,6 Km
Martxoak 26	Ostirala	18:00	Bolua-Neguri-Ereaga	3,4 Km
Apirilak 8	Osteguna	19:00	XX. mendeko euskararen Ibilbidea: Portu zaharreen hasita	1 Km
Apirilak 13	Asteartea	19:00	Bolua-Santa Koloma-Bolua-Aiboa	2 Km
Apirilak 22	Osteguna	19:00	Telletxe-Ereaga-Arrigunaga-Aixerrota-Bidezabal	3 Km
Apirilak 26	Astelehena	19:00	Bidezabal-San Inazio-Neguri	3 Km
Maiatzak 4	Asteartea	19:00	XX. mendeko euskararen Ibilbidea: Portu zaharreen hasita	1 Km
Maiatzak 12	Asteazkena	19:00	Santa Ana-Romo-Neguri-Aiboa	3,6 Km
Maiatzak 20	Osteguna	19:00	Andra Mari-Sakuskune-Diliz-Andra Mari	5,9 Km
Maiatzak 28	Ostirala	19:00	Andra Mari-Diliz-Galea-Andra Mari	5,7 Km
Maiatzak 31	Astelehena	19:00	Bizkaia Zubia-Zugatzarte-Ereaga-Igeretxe	4,1 Km
Ekainak 8	Asteartea	19:00	Bolua-Neguri-Ereaga	3,4 Km

Ibilbideak euskaraz izango dira




Eskatu informazioa Udal Turismo Bulegoan edo deitu 688 635 350. Izena eman behar da telefono honetan: 688 635 350



UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte
HELBIDEA: Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 94 491 13 37
ZUZENDARIA: Maitane Nerekan
AHOLKULARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Zuberoa Iturburu, Maitane Nerekan
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Berbets Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepona Euskara Elkarte
MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (94 491 13 37)
KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1876-00
ISSN: 1576-6799
 © Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

TRATU TXARREN BIKTIMAK ARTATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA: 900 940 111

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Lamiako.
7. LEHEN ETA ORAIN. Berangoko bista orokorra.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Juan Manuel Nuñez.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Sopelako obrak.
28. ARGAZKIA. Lantegi ahaztua, Astrabudua.
30. BERBETAN. Zalao Borda.
34. FOTOGRAFIA. Indalecio Ojanguren.


KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. *Komunika Sur* I. bideo lehiaketa.
43. MUSIKA. Kontzertuak Uribe Kostan. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. *Jpuin Erotikoan lehiaketa*. Erreseinak.
45. KIROLAK. Iñigo Iruetagoiena.
46. ELKARRIZKETA. John Andueza, *Simplemente* dokumentala.

AMAITZEKO

49. NORA JOAN. *The Willows Tea Room*, Areetza.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Erandio Goikoako Dantza Taldea, 1950.
54. AITORMENAK. Ohian Vega.


Azala: Indalecio Ojanguren




30 Zalao Borda

Berbetan

Getxoztarra 2008ko urrian sortu zen ETB3 kate tematikoko Sail Artistikoko arduraduna da.



11 Juan Manuel Nuñez



54 Ohian Vega

MÉGANE EMOTION

85cv dCi

10.600€*

1.000€-ko deskontua aukerako edozein ibilgailu erostean**

ZUK DENA NAHI DUZULAKO

RENAULT OCASIÓN

* PSP transferentzi gastuak barne. Ikustarazko eta eskaintzako bertsioak desberdinak izan daitezke. ** 10 urte baino gehiagoko kotxea uztean.

BILBO BERRI BIZKERRE, 3. GETXO. TELÉFONO: 94 430 68 81 www.bilboberri.com

Leihatila

> Pedro Garcia Larragan

Espekulazioa

Hori da krisi honen eta aurrekoen azalpena. Hori bezain ximplea. Eta hala ere, erraz ahaztu egiten dogu. 1929ko krisiaren ostean, espekulazioa zegoen. 2007ko krisiaren atzean, baita ere. Batzuk, diru mordoa eskaintzen digute, etxebizitzeen gorakada dela eta, interes haundiko 'zamarbonuekin', edo punta puntako teknologieekin. Ustezko eta urte askotarako etengabeko igoera izango zena, porrota gorrian bilakatzen da denboraz. Beti.

John Kenneteh Galbraith ekonomistak argi esaten zuen orian dela 20 urte: espekulazioak badauke barne beran suntsipenaren hazia. Tamalez, gure memoria laburra da. Eta gaurko estatusunaren ondoren, berriro ere eurforia eta espekulazioa birjaioko dira. Behintzat, hurrengo krisian, ez gaitzala ezjakin harrapa. Nik behintzat gauza bat argi daukat: ez da ogerlekorik lau pezetatan.

gu geu

Aldaketak datoz Uribe Kostara

Zenbaki honetan, irakurle, orrialde aldana aurkituko dituzu gure eskualdean gertatzen dabilzan eraspenez, desegiteez, ondorengo edo bestelako eraikitze planez... Aldaketak datoz Uribe Kostara. Berbarako, eraitsitako hautsetatik altxaraziko duten Lamiakoko auzune barriaren gaineko albistea, edota Sopelako hondartzara bideko gunearen eraikitze prozesuaren inguruko barria.

Horrek gogoetarako bidea zabal dezake: batzuetan -lar gitxitan, tamalez- suntsitzea ez dateke txarrerako; zegoenagaz amaitzea, altxatutakoa lurrera botatzea, eroraraztea onerako izan liteke, baldin eta erabiltzaileen, bizilagunen, herriaren eta Lurraren oneritziagaz eta adostasunean egiten bada; ostera, sarriago, lurrera botatzen da baina ez Lurraren onerako, zoroak legez erorarazten da baina ez barrizeko eta hobea altxatzeko... Batzuetan aldaketak onerako izaten dira, adostuak, bestetan araziak...

Bestalde, Emakumeen Mundu Martxaren barri ere emoten du hain zuzen martxoaren 8aren bueltan kaleratuko den 171. UK honek, mundutik Uribe Kostara hilaren 10ean helduko den martxa, hain zuzen.

Eta hala, aurreko guztiak, eta azken aldiko krisiak, zein azken boladako hasiera-sorrera ziklo leherkorra direla eta izenburura ekarri dugu, apur bat alderatuta, burura etorri zaigun abestia: "...Zutik lurrean kondenatu zaren langile tristea... Gertatuak ez du ardura, jende esklabua jeiki; aldaketak datoz mundura, nor den herriak badaki...."

UK-ko lantaldea

Iritzia

Bizarra Lepoan, Egizu, ukberri.net agerkaria eta UK aldizkarian opari berezia jaso barri dugu; zapore gazi-goza gelditu bazaigu ere, bihotzez eskertzen dugu.

Inmari bihotzez

Kaixo Inma!

Gutunak idaztea zaila izaten da gehienetan, are gehiago, bihotzeko kontuak le-tren bitartez kanporatu behar ditugunean. Zuk ekarritakoak, bihotz kontuak dira

«Aurrera egiteko adorea eman digu gure beharrein sinesten duen jendea ikusteak»

hitzorduen artean galduta geundela. Ezustekoa izan zen guretzat, digeritzea zaila egin arren, sabelean sentsazio ederra uzten duten ezusteko horietakoa.

Ohituta gaude komunikabideetan entzuten, urruneko herrialderen batean gertatutako hondamendi handien ondorioei aurre egiteko, erakundeek zein bana-koek diru-laguntzak eman dituztela.

guretzat; bai, barruraino heldu baitzaigu zure ekarpena. Egunerokotasunean murgilduta geundela heldu zinen gure mundu txikira, paper eta agendako

Zuk aldiz, horiei begiratzeaz gain, gure herriko euskararen mundu txiki-hurbilari kliska egin diozu. Eta bihotzez eskertu gura dizugu hori, bultzada ederra eta aurrera egiteko adorea ematen baitigu gure beharrein sinesten duen jendea bada-goela ikusteak.

Batzuen ustez, Getxoko euskararen munduak ez dauka aurrera egiteko adina indarririk. Ez dugu baieztapen horretan sinesten eta zurea bezalako keinuek horri buelta ematen laguntzen digute. Bapurke antolatzen, blogari euskaldunak biltzen, sagardotegira txangoak egiten, aldizkariak kaleratzen, berbalagunak euskaraz berba egitera animatzen, albisteak idazten, eskola kirola euskalduntzen... hori guztia egiten jarraituko dugu zu bezalako jendeari esker; gure egitasmoak zureak eta gure beharrein sinesten duten guztienak direlako, zuek egiten baitituzue posible; zuek ematen diezue zentzua.

Zuk eskatutakoa betetzeko gure eskue-tan dagoen guztia egingo dugu; herri honi berea den hizkuntza zaharra itzultzeko, bidea egiten jarraituko dugu. Eta ziur izan, bide luze horretan zu bezalako asko topatzen baditugu gure beharra askoz errazagoa izango da.

Apirilean adibidez, *Savea Josten* ekime-nari esker, herriko euskaldunak elkarlanean ikusiko ditugu; bazkaltzen, hitzaldiak entzuten, herri kirolean lehiatzen eta beste hainbat kontutan parte hartzen, elkarregaz. Zeu ere gure artean egongo zara, Berbalagunen mingainetan, taldeki-deak animatzen dituzten lagunengandik... txalapartarien ttakunetan...

Bitartean, beharrein jarraituko dugu getxoxtarrei euren den hizkuntza zaharra itzultzeko. Bertsolari ezagun batek esan zuen bezala: "herri hau sortzen segi dezagun euskaratik eta euskaraz".

Besarkada gozoa, hurrengora arte!

Bizarra Lepoan, Egizu, ukberri.net eta UK aldizkariako lagunak



LAMIAKO, 2010EKO OTSAILAREN 24A

Kitto! Egina dago...! Ez dago atzera bueltarik, eraitsi egin dute Lamiako erdia. Auzotarrak Leioako metro geltokiaren ondoko etxe barrietara aldatu ziren duela hile gixi, eta dagoeneko, etxe zaharrak bota dituzte bere kabuz jausi ez zitezten, eta barriari leku egiteko. Izan ere, jarraian hasi behar e dira eraikin barriak altxatzen. Auzo ia erabat aldatuko da horrela. Jende barria itzitsiko da auzora, aurreragi eta haize barriak; mugarrira Lamiakoko historian. Gauza ona? Txarra? Batzuen gustuko eta besteen disgustuko, baina auzoaren izaeran eragingo duela ezin uka. Zer etorriko den jakiteko, irxaron behar. o / Argazkia: Asier Mentxaka



Kultura Sailak
(Hizkuntza
Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundutakoa.



Ekintza honek
Bizkaiko Foru
Aldundiaren laguntza
jaso du.

Leioaztarra* bazara ez geratu etxean apirileko oporretan!

Apirilaren 6tik 9ra baduzu nora joan:

TXILINBUELTAKA

1998 eta 2003 bitartean
jaiotakoentzat

GAZTERPE-ABENTURA

1994 eta 1997 bitartean
jaiotakoentzat

HONDARRIBIA

Egonaldia euskaraz
zure lagunekin

ORIO

Kayak, kostako ibilaldia,
animazio ekintzak...

Prezioa: **74,20 €**

Informazioa eta izen-emateak:

Martxoaren 10etik 17ra, goizeko 9:00etatik 14:00etara

EUSKARA ZERBITZUA

Jose Ramon Aketxe plaza 11, 4. solairua (Kultur Leioa)
Telefonoa: 94 607 25 76. e-posta: euskarazerbitzua@leioa.net

* *Ezinbestekoa da Leioan erroldatuta egotea*

[lehen]



INDALEGO OLAGUEREN

[orain]



ASERMENTIXAKA

Iraganez doa denbora* beti / BERANGOKO BISTA OROKORRA

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > bere zain



2010eko otsaila, Gobela (Getxo)

Testua: **Maialen Markaida** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: Albizturikan bidaniraino

Hor ezagutu nuen aspaldi nire lehenengo mutila; pertsona ona jatorra eta lotsati bezain umila. Baina egun baten izan genuen sekulako iskanbila, behin ezer esan gabe joan zen bera beti hain isila; oraindik ez da itzuli, baina ni ez noa bere bila. Noizbait benetan maite izan banau bera etorri dadila.

Eskaileratik pasa behar naiz egunean zehar noiznahi, askotan ere hor geratzen naiz esperantzaz beraren zai(n;) aldiz ezin dut buruan izan eta egon lasai-lasai, berriro ere barre egin nahi dut sentitu lehen bezain alai. Behingoz lmanol guztiz ahazteko izan beharko nuke gai; nik bera maite behar dudalako, baina berak nik ere bai.

Beti penetan egotea denez izugarriko matraka; gaurtik aurrera gorroto denak ahaztuz, alde baten planta ahaztu, liskarrak momentu txarrak eta oihuen zarata normaltasunez igoko ditut. Trankil (e)ta banan-banaka honekin ez dut erakutsi nahi naizenik bape ausarta, azken finean eskailera hori eskailera hutsa da (e)ta.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal lezaguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz

Luberr Basolanak, SL
 Axpe ibaiertza 28A
 beheko solairua B12 lokala
 Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
 Tf: 94 467 17 13
 Faxa: 94 467 42 41
luberr@euskalnet.net
www.luberr.biz

- Soropila ezartzea
Lurzoru prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta errite lanak.
- Soropila zaintzea eta mantentzea
Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aritzea eta destrinkotzea, berrikatzea, soropil gaitzak eta belar gaitzak tratatzea.
- Inausketak
Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaizka apaingarriak inauszea, erabateko inausketak.
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

getxo > Turismoko Kalitate Osoko Sistema abiatu du Udalak



Ferry asko hurbiltzen da Getxoko Kirol Portura

Turismo sektorea profesionalizatu eta herriko enpresa esparrua indartu guran abiatu du Getxoko Udalak Turismoko Kalitate Osoko Sistema. Turismoko Kalitateagaz konpromisoaren bereizgarria lortzeko prozesua da eta iraila arte luzatuko da. Asmoa da establezimendu eta negozio turistikoetan kudeaketaren zorroztasuna indartzea. Horrela, jarduera “*turistikoan eskaintzen diren zerbitzuen kalitatea eta bezeroen gogobetetze maila hobetuko da*”, Udalak dioenez. Gainera, Turismo Mahaia edo Kalitate Turistikoaren Mahaia sortuko dute, kudeaketa turistikorako egitura iraunkorra, herria “*turismorako helbide kontzientzia hartzen joan dadin*”. Herriko 30 enpresa dabilta trebakuntza programa gauzatzen. Lau ziklotan banatzen da programa hori eta lau urtetan garatzen, baina lehenengoan balioztatze emaitza positiboa izanez gero, kalitateagaz konpromisoaren bereizgarria eskuratuko dute. ○

J. A. Agirre > Getxoko alkate ohiaren dokumentuak interneten



www.lehendakariagirre.eu izena darama atariak

Jose Antonio Agirre Euskadiko Gobernuko lehen Lehendakariari buruzko gunea abiatu du interneten Agirre Lehendakaria Batzordeak, haren heriotzaren 50. urtemugan. Agirrerren testu, film, argazki eta audioak ikus daitezke, hari buruz “*inoiz bildutako dokumentuen bildumarik ugariena*”, egileen hitzetan. Agirregaz zerikusia izan zuten erakundeek eta politikagintzan beragaz batera jardun zuten beste zenbait kideren senitarteko zuzenek osatzen dute batzordea. Atariagaz batera jarduera-egitaraua ere aurkeztu dute. Aurten 30 bat ekitaldi egingo dituzte, martxoaren 6an izan zen lehena Lehendakaritzan. Getxon apirilaren 15ean egingo dute ekitaldia, eta azaroan, Agirrerren izaera municipalistari buruzko ikerlan baten emaitzak aurkeztuko dute. ○

saiazgetaria
HOTELA

Rake Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa

...harria ...lehengo garaiaik... ...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

[talaia]

nabarra > NBEk onartu du “erresumaren kolonizazioari” helegitea



Nazio Batuen Erakundeak (NBE) onartu egin du Nabarrako Burujabetza Komisioaren helegitea. Nafarroako Estatua deskolonizatzeko eskaera egin du Komisioak NBEko Deskolonizazio Batzordean, eta baliteke udaberriean, NBEko begiraleak gure artean izatea, auzia aztertzeko. Zehazki, Atapuerkatik Foixeraino eta Bordeletik Ezcarayraino doan lurraldea deskolonizatzea eskatu dute, hots, 1512an Nafarroako Erresumaren lurrak zirenak. Erresumaren eskubideak, lurraldea eta hizkuntza berreskuratu gura ditu Komisioak. Orain 15 urte ekin zion bide horri Nabarrako Errege Etxeak, Albret erregearen oinordekoak; *“Espainiak eta Frantziak indarkeriaren eta genozidioaren bitartez konkistatu zuten Nabarrako Estatua berreskuratzea”* dute helburu. Gainera, *“horrela izanik, nazioarteko zuzenbidearen arabera, Nafarroako Estatuak independentzia erdiesteko eskubidea”* duela azaldu du Komisioak. 2012an kaleratuko dute ebazpena. ○

<http://nbk2012.blogspot.com> gunean dago auziari buruzko informazioa

ikastolak > udako aisialdi eskaintzan izena eman daiteke



Ikastolen Elkartearen udako aisialdi eskaintzan izena eman daiteke apirilaren 29ra arte. Eskaintza zabala dago: udalekuak euskaraz eta ingelesez, gazte egonaldiak, Irlandan egonaldiak edota Kale Arte. Ekainean eta uztailan izango dira eta adinaren arabera antolatuta. Ikastolen Elkartekoek azaldu dutenez, txikienek lehen aisi esperientzian murgildu ahalko dute, eta nagusiek, Euskal Herriko hainbat txoko ezagutu. Hori dena euskaraz eta ingelesez, *“euskaraz bizi eta ingelesez mundura irekitzeko”*. Besteak beste, txikiek, ikastolan izango dituzte udalekuak, baina 8 urtetik gorakoek, Etxarri-Aranatzen eta Lapuebla de Labarkan euskaraz, eta Ondarroa, Bermeo, Zarautz eta Sopelan ingelesez. Eskaintza osoa eta beharrezko informazioa (prezioa, datak...) ikus daiteke www.ikastola.net gunean. ○

Sopelako Ander Deuna ikastolak hartuko du udalekuetako bat

[erretratua]



“Alde batetik pena daukat, hau nire etxea bezalakoa baita; bestetik, pozik nago lokal barria handiagoa delako”

Juan Manuel Nuñez > Lamiakoko zapataria

Lantokia hankaz gora duela dirudien arren, Juan Miguel Nuñezek badaki behar duen guztia non dagoen. Gehienak pilota jokoan eta soka saltoan zeuden garaian, “kolpe-kolpeka, josi eta josi” zapatak konpontzen hasi zen 11 urte gaz: *“Badajozeko herrixka batekoa naiz eta han lurra lantzea besterik ez zegoen; lagun baten bitartez, zapatari hasi nintzen”*. Orain 40 urte etorri zen Euskal Herrira eta azken 35 urteak, Lamiakoko bihotzean dagoen pospolo kutxa formako zapata denda txikian eman ditu. Baina, Lamiako auzoa bizibarritzeko aurrera errotan ari diren lanak direla eta, pospolo kutxa utzi eta lokal barri batera aldatu behar da Nuñez: *“Alde batetik pena daukat, hau nire etxea bezalakoa baita; bestetik, pozik nago, lokal barria handiagoa eta txukunagoa delako. Han apal batzuk jartzeko aukera izango dut behintzat”*. Beragaz berbetan gaudenean, obra-hondakinez inguratuta dauka lantokia eta makinaren zaratak giroa gaiztotzen du; hala ere, Lamiakoko zapataria lasai dago beharrean eta bezeroak irribarrez hartzen ditu. Eskuak dira bere lan-tresna garrantzitsuenak: *“Eskuz josten dut, hori da gogorrena”*. Ogibidea gustuko duen galdetzen diogunean, baietz esaten digu ziurtasunez: *“Ez dut besterik probatu”*. Are ziurrago agertzen da lanetik urtenda-koan bere “hobbya” zein den erantzuten digunean: *“Auzoan tragoak hartzea”*. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Areetan

Villa de Pienzia, 6.
T 94 464 90 87
E areeta@cianoplan.es



BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

Zentro teknologiko aitzindaria

BiscayTIK Fundazioa hartuko dute **Bake Eder** jauregiak eta **Areetako antzinako azokak**; Aldundiak sustatuta eta Microsoft enpresaren laguntzagaz eroango da proiektua aurrera

Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatuta eta **Microsoft** enpresaren laguntzagaz **BizcaTYK** Fundazioa sortu barri dute; Zugatzarteko **Bake Eder Jauregiak** eta **Areetako antzinako merkatuak** izango dira proiektuaren egoitzak. **Administrazioa** herritarrei hurbildu eta **Udaletako tresna informatikoetan sakontzeaz gain, Bizkaia erreferente bilakatu gura dute teknologia zentroagaz.**

Bizkaiko Foru Aldundiak Microsoft enpresaren laguntzagaz eta Getxoko Udalagaz elkarlanean, BiscayTIK teknologia zentroa aurkeztu zuten otsailean. Zugatzarteko **Bake Eder Jauregiak** eta **Areetako Ama Mesedeetako, Urkixo** eta **Ogoño** kaleen artean dagoen antzinako azokak hartuko dute proiektua.

Jose Luis Bilbao Bizkaiko Ahalduen Nagusiak eta Imanol Landa Getxoko Alkateak proiektuaren aurkezpenean esandakoaren arabera, hiru helburu betetzeko jaio da BiscayTYK: administrazioa herritarrei hurbiltzea, Bizkaiko Udaletako tresna informatikoak bateratzea, eta Administrazioan informazio teknologien aplikazioan Bizkaia nazioarteko erreferente bihurtzea. Landak azken helburu honen garrantzia azpimarratu zuen aurkezpenean: *“Getxo kokatuko du teknologi barrien, barrikuntzaren eta ezagutzaren munduko mapan. Aukera ugari eskainiko dituen ikusmuga zabaltzen da abe-*



Bake Eder Jauregia izango da BiscayTIK Fundazioaren egoitzetako bat

rastasuna sortzeko, arlo ekonomikoan zein ikerkuntzan, gaur egun ekonomia globalizatuen mundu honetan bain garrantzitsua zein ezinbestekoa dena”.

Bake Eder eraikineko lanak 2010eko

«Bake Eder eraikinean, administraziorako teknologikoan sakonduko dute; Areetako merkatu zaharrea aldiz, informazio teknologian»

abendurako amaitu gura dituzte eta bederatzi milioi euroko inbertsioa suposatuko dute. 8.000 metro koadrotan, produktu barrien garapenean, ikerkuntzan, formakuntzan eta barrikuntzan behar egingo dute. Horrez gain, administrazio elektronikoa lotutako

enpresen haztegia hartuko du Bake Ederrek. “Be My Grov” Zentro Teknologikoa izena eman diote egitasmoaren atal honi.

Areetan eraikinak oster, 4.300 metro koadro izango ditu eta informazio eta ezagutza teknologikaz lotutako enpresa espezializatuak hartuko ditu. Beheko eta lehenengo solairuetan Udaleko zerbitzuak egongo dira: Ekonomia Sustapenerako arloa, Turismo Bulegoa, erabilera anitzeko gela eta beste areto batzuk. Gainontzeko solairuak Elkarte-gia hartuko dute; 45 eta 65 metro koadro bitarteko txokoak izango dituzte elkarteek, bilera egiteko gela batera.

Azoka zaharreko eraikinean, 6.200.000 euro inbertituko dituzte; maiatzaren hasiko dira lanak eta 15 hilabetetan amaitzea aurreikusita dago. ○

Bertokoak eta etorkinak

Emakumeak berbetan hileko azken eguenetan



Bertoko emakumeen eta emakume etorkinen arteko topaketak egingo dituzte

Berbalditxoa izatea nahikoa izaten da askotan gustura eta indartsu sentitzeko; bizipenak konpartitzea aberasgarria izan ohi da. Premisa horretatik abiatuta eta Getxoko Udaleko Berdintasun Zerbitzuak antolatutako Jabekuntza Eskolako ikasleen eskaerari erantzunez, bertoko emakumeen eta emakume etorkinen arteko topaketak antolatu dituzte aurten. Otsailaren 25ean egin zuten lehenengo emanaldia; martxoan, apirilean eta maiatzaren ere saioak egingo dituzte hileko azken eguenetan. Antolatzaileek azpimarratu gura izan dute, *“irrukerako eta gogoetarako ekimena”* dela eta *“gure komunitatea nola eraikitzen dugun”* aztertuko dutela.

Martxoko saioa 25ean egingo dute, arrastiko 19:00etan Villamonteko Kultur Etxean (saio guztiak leku eta ordu

berean izango dira). Silvia Carrizok, *“Manos que mueven el mundo”* azterlanaren egileak, EAEko emakume etorkinek Etxeko Enpleguan bizi duten errealitate-ri buruz berba egingo du. Saio guztiak metodologia parte-hartzailea izango dute; hitzaldiak, gogoeta eta eztabaidakaz tartekatuko dira. Apirilaren 29an, emakume etorkinak eta indarkeria sexistari buruz egingo dute berba. Azken saioan barriz, maiatzaren 27koa, topaketetan zehar proposatutako gaiak landuko dituzte.

Parte hartzeko ez da izena eman behar; saioak independenteak izango dira eta ekintza batera edo gehiagotara joateko aukera dago. ○

Informazio gehiago: 94 466 01 36/
berdintasuna@getxo.net

GIZARTE ZERBITZUEN LAGUNTZA ESKATZEKO EPEA 25A ARTE

Martxoaren 25a arte egongo da zabalik Getxoko Udalak Gizarte Zerbitzuen arloan jarduten duten elkarteei emandako diru laguntzak eskatzeko epea. Aurten 70.000 euro banatuko dituzte; asmorik bako erakundeek eskatu ahal izango dituzte laguntzak, udalerrian edota udalerriko laguntzat behar egiten dutenek. Eskaerak Udaletxeko Erregistro Orokorrean eta Gizarte Zerbitzuetako Bulegoetan aurkez daitezke. Urgulleko eta Romoko bulegoetaz gain, Andra Mari auzoko Urduña kalean bulego barria daukate Gizarte Zerbitzuek otsailetik. Auzo horretako 15.000 bizilaguni emango die zerbitzua.

EZINTASUN PSIKIKOAK DITUZTEN LANGILEAK ZAHAR-ETXEAN

Udalak “Ranzari Lantegia” tailerragaz sinatutako lankidetzari hitzarmenari esker, ezintasun psikikoak dituzten zazpi lagun Udalar zahar-etxeko arropak garbitzeaz eta garbiketa lanak egiteaz arduratuko dira. Egoitzak garbiketa zerbitzua du eta ez zuen lan horiek egiteko giza baliabiderik. Zazpi langileatik hiru, getxoztarrak dira “Asociacion Uribe Kosta en favor de las personas con discapacidad intelectual” elkarteak kideak. Guztiak gutxienez arduradun begirale baten zaintzapean egingo dute behar. Hitzarmena urte betez egongo da indarrean.

ENPRESA TXIKIENTZAKO INFORMAZIO MINGEGIA

Getxolanek GETXO Egokitu-DPBL egitasmoagaz jarraituko du 2010ean eta horretarako informazio mingegia antolatu du hilaren 17 eta 18rako goizeko 09:30ean Kultur Etxean. Egitasmoak hiru zutabe nagusi ditu: informazioa, formakuntza eta enpresentzako aholkularitza. Martxoko zortzi ordutako mingegian, Datu Pertsonalak Babesteko Legearen inguruko informazioa eta aholkuak emango dituzte.

Izena emateko: 94 466 01 40

Etxeart

Eraikuntza / Barrikuntzak
Zurezko Egiturak



Sagastikoetxe Industrialdea
Etxalde 2 - Pabloi 11
48830 Gorliz

Mob.: 607 148 346
Tel.: 946 773 144



<http://www.etxeart.com>

Air Europa Bimont > *Patagonian Expedition Race*-eko txapeldunordeak

“Lehiaren bizipenaz gain, ingurune hori ezagutzea ikaragarria izan da”



Air Europa Bimont taldeko kideak. Yosuke Kashiwakuraren argazkia

Urtzi Iglesias eta Jon Ander Aranbalza getxoztarrek, Uxue Fraile donostiarrak eta Saul Abril kataluniarrak osatzen dute Air Europa Bimont taldea. 2010eko otsailaren 9an Txileko Patagonian egiten den Patagonian Expedition Race zeharkaldian abiatu ziren; zazpi egun geroago amaitu zuten, bigarrenak sailkatuz. Txirindula, trekking eta kayak eginez 600 kilometroetako esperientziak berba egin digute.

—Noiz erabaki zenuten Patagonian Expedition Race-era joatea?

—Aspaldi ezagutzen genuen lasterketa, baina duela hil bi erabaki genuen joatea. Horrelako frogak gehiago egin ditugu, Estatu mailan. Azaroan, munduko txapelketan egon ginen Portugalen eta nahiko ondo egin genuen. Horregatik, Txilera joatea erabaki genuen; munduko txoko hori oso interesgarria egiten zitzaigun. Abenduan bidaia ekonomikoki bideragarri egiteko beharrean hasi ginen; bidaia oso garestia da, hainbeste jarduera egiten direnez material asko

eroin behar izan dugu. Sponsorrek lortzea ez da erraza izan. Hala ere, gogo handia geneukan eta hasieratik genekien joango ginela.

—Zelan entrenatu zarete frogarako?

—Kirol honen barruan jarduera asko daudenez, denetarik jakin behar dugu. Korrika eta bizikleta entrenamenduak egin ditugu, beharretik urtendakoan. Piraguagaz entrenatzeko, zailtasun gehiago izan ditugu. Bestalde, oso garrantzitsua da orientazioa lantzea; kirol honetan ez dago ibilbidea zehaztuta, mapa eta iparrorratzagaz joan behar

gara eta guk aukeratu behar dugu bidea.

—142 orduko lasterketa eta gero, zer?

—Norberak erabakitzen du noiz lo egin; atsedean hartzen baduzu ez duzu aurrera egiten eta ondo pentsatu behar da estrategia. Helmugara heltzen zarenean nekea izugarria da, baina hasieratik amaitzea besterik ez genuen buruan eta sentitu genuen gozamenak ikaragarria izan zen. Gainera, bigarren postua lortu genuen eta hori ezusteko handia izan zen guretzat. Hasi ginenetik %50ek baino ez zuen amaitu lasterketa. Poztasuna eta gero etorri ziren minak; ordura arte, lehian gaudenez, ez ginen konturatzen.

«Ez dugu sufrimendua ahaztu, baina errepikatzeko gogoz gaude»

—Zegaz gelditzen zarete?

—Alde bi daude. Batetik, lehia; gugaz egon diren taldeek maila handia dute, munduko txapeldunak ere izan dira eta bigarren gelditzea asko da guretzat. Bestalde, ingurune hori ezagutzearen bizi-pena. Tierra del fuego, Darwin mendikatea, Beagle kanala... ikusgarriak dira. Gizakiaren arrastorik ez dago; askotan bakarrik ibili gara, hainbat kilometrotan giza bizitzaren arrastorik ikusi barik.

—Beste erronkarik baduzue?

—Bai, aurten Espainiako Liga dugu. Urtean zortzi frogak dira, 15-20 ordutakoak. Ez dira Patagoniakoaren modukoak, luzerari dagokionez, baina erritmoa askoz biziagoa da. Horrez gain, munduko txapelketara joan gura dugu, Gredosen (Gaztela-Leon). Aukera polita da, etxetik hurbil dagoelako. Datorren urtean ikusiko dugu; ez dugu sufrimendua ahaztu, baina errepikatzeko gogoz gaude. ○

Sexuaz berba egiteko

Algortako **Martikoena kalean** doako **sexologia zerbitzua** martitzenero



Bikoteentzako aholkularitza zerbitzua egongo da, besteak beste

Sexologia informazio eta aholkularitza zerbitzua jarri zuen martxan otsailean Udaleko Berdintasun Sailak. Algortako Martikoena kaleko 16. zenbakian, Alango osasun zentro barriaren ondoan, profesional bat hurreratzen diren galderak erantzuten saiatuko da martitzenero 17:00etatik 20:00etara (garrantzitsua da hitzordua aldeztetik eskatzea).

Udaletik adierazitakoaren arabera, *“helburua adin guztietako pertsonen laguntza ematea da, sexualitateaz gehiago goza dezaten, beren gurariakaz eta interesagaz lan eginez edo sexu zailtasunak gaindituz, zalantzek, aurreiritziek edo*

informazio faltak berak zailtasunak ekaritzen baitituzte norberaren sexualitatea eraikitzeko garaian”.

Adin guztietako gizon emakumeek erabili dezakete zerbitzua; profesional batek erantzun du galderak eta konfidentzialak izango dira. Kontsultak telefono bidez, aurrez aurre (hitzordua eskatuta) eta e-postaz egin daitezke eta indibidualak, bikoteka edo taldekoak izan daitezke. Aholkularitzaren iraupea, sexologoak erabakiko du eta gaiaren arabera izango da. ○

Informazio gehiago: 94 466 01 37 / sexuinfo@getxo.net

ARTISAUTZA AZOKAN IZEN EMATEA 18A ARTE

Maiatzaren 28, 29 eta 30ean egingo dute Areetako Geltoki Plazan Getxoko Artisanautza Azoka. 83 modulu jarriko dituzte; horiek eskatzeko epea zabalik egongo da martxoaren 18a arte. 4x3 metrokoak izango dira moduluak, oholtza, moketa, argitapea, eta argi indarragaz. Bizkaiko artisauak 125 euro ordaindu beharko dute stand bakoitzeko; gainontzekoek 175. Azoka goizeko 11:00-14:30 arte eta arrastiko 17:00-21:00 arte egongo da zabalik. Sarrera doakoa izango da eta zuzeneko erakustaldiak egongo dira.

GAZTE ASANBLADA ISUNAKAZ NEKATUTA

Algortako Gazte Asanbladako lagunek joan den urtean burututako hiru ekimenengatik Udalak jarritako isunak salatu dituzte eta *“kalea herriarena”* dela aldarrikatu dute. Txorimalo Gaztetxearen urteurrena, X. Indabada eta Telletxen egindako Truke Azoka dira Udalak 300 euroko isunagaz zigortu dituen ekimenak. *“Inolako zigorrik barik”* euren *“ideiak eta proiektuak garatzeko aukera”* izan beharko luketela uste dute gazteek: *“Ez dugu onartzen jarrera baztertzaila eta zigortzaila. Ideiaz, ilusioz eta alternatibaz, bustitzen jarraituko ditugu gure herriko kaleak, ez dugulako uste, inolaz ere, herriaren mesedera lan egitea delitua denik”.*

WANTED LEHIAKETAKO EPEA ZABALIK 12A ARTE

UK-ko aurreko alean iragarri bezala, martxoaren 12a arte aukera egongo da Gazteria Zerbitzuak antolatutako *Wanted* lehiaketan izena emateko. 18 eta 30 urte bitarteko gazteek har dezakete parte; ideiak edo lan proiektuak sarituko dira. Deialdi honen oinarriak Getxoko Herriarren Harretarako Bulegoetan edo Gazte Informazio Bulegoetan eska daitezke. 500 eta 15.000 euro arteko diru sariez gain, proiektua aurrera eramateko aholkularitza zerbitzua eskainiko dute.

Informazio gehiago: wanted.getxo.net

lagusana
libros y letra pequeña

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
lagusana@lagusana.net

Lourdes Viana > Lamiakoko Nati Drogeria-Burdindegikoa

“Hoberako edo txarrerako izango den aurrerago esango dut, baina Lamiako ez da berbera izango”

Betiko denda da Nati Drogeria Lamiakon. Lourdes Viana du arduradun, haren amak ere bertan eman zuen bizitza osoa. Orain desagertzea doa, inguruko saltoki eta etxeak batera, auzo barria altxatzea doaz eta.

—Zer sentitzen duzu kaleratzea eta eraistea berehalakoa dela jakinda?

—Tristezia eta pena handia; 21 urte ondoren, maitasuna hartu diot lanari, auzoari eta auzokideei.

—Zer gertatuko da dendakaz?

—Jabeei ezaugarri berberadun lonja eta kalte-ordaina emango ei diete. Lonjaren jabe ez garenoi, barriz, negozioa tasatu eta kalte-ordaina emango ei digute. Taberna bi etxe barrietan jarri dituzte, eta beste lonja batzuk, Correosen bulego ondoan jarriko dituzte. Baina tabernekin eta zapatariak bakarrik jarraituko dute jardueragaz, besteok ez.

—Merkataritza ez da lehengoa izango?

—Ez. Gainera, orain arteko moduan, merkataritzak bazeukan etorkizuna. Auzokideak eroan dituzte Leioako metro geltoki ondora, auzoa hara aldatu da, baina merkataritza ez. Tabernak eraman dituzte, baina auzokide horiek ez daukate ogia non erosi, esaterako.



21 urte daroa Lourdesek dendan, haren amak bizitza osoa eman zuen

—Zer eragin izango du aldaketak auzoko bizitzan?

—Orain zatituta ikusten dut auzoa. Batetik, eraitsiko ez dituzten etxeak, eta bestetik, Leioako metro ondokoak. Etorkizunean, suposatzen dut positiboa izango dela, eraikiko dutela eta merkataritza lokalak jarriko dituztela.

—Eta auzoak, izaera bera gordeko du?

—Auzoa ez da bera izango. Hoberako edo txarrerako izango den, aurrerago

esango dut, baina ez da berdina izango. Lamiako beti izan da auzo langilea, baina oso familiarra, denok ezagutzen genuen elkar. Dendara erostera joan eta beti topatzen zenuen ezagunen bat; oso auzo kutuna zen. Orain, barriz, eraikin barriak egin zituztenetik, jende barria dago eta ez dugu denok elkar ezagutzen. Baina beno, suposatzen dut toki guztietan gertatuko dela gauza bera eraikin barriak altxatzean. ○

Haur eta musika eskolak

Txomin Aresti ondoko **eraikin barrian** egingo dute haurreskola eta musika eskolako gelak



Egungo musika eskolari lotuta egongo da eraikin barria

Aurten hasiko dira eraikin barria egiten, Txomin Aresti eskolaren ondoan, hiru solairutakoa. Haurreskola kokatuko dute behekoan, eta musika eskolako hainbat gela hirugarrenean. Tartekoa gordeko dute etorkizunean hezkuntza arloan beharrezkoak izango diren zerbitzuetarako.

Eraikinak 2.000 metro koadro izango du eta Udalak 2.636.372 euro inbertituko du, eta II. Tokiko Inbertsio Fondoan %80 gaz bideratuko da.

Haurreskolak 0 eta 2 urte bitarteko 80 ume hartu ahalko ditu, eta horregaz, “haurreskola publikoen eskaria handitzea lortu gura du” Udalak. Haurreskolen Patzuergoaren esku utzi gura du haren

kudeaketa, Artatzako haurreskolagaz egin bezala.

Beste solairu biak Musika Eskolaren oraingo eraikinaren parean egingo dituzte. Udalak dioenez, egitasmoak ahalbidetuko du gelen egokitzea teoria eta praktika behar bezala tartekatzeke, eta matrikulazio barriak hartu ahal izateko. Gainera, perkusioaren eskaintza handitzeko asmoa dute, herrian “eskari oso handia dago eta”.

Azkenik, tarteko solairuak etorkizunean “herriko hezkuntza zerbitzuak handitzeko abalmena emango duela” uste du Udalak, “adibidez Mendibil zonaldeko gelak hartuz, Txomin Aresti ikastetxearen alboan kokatuz”. ○

UGARTEONDOK BADAUKA PARKEA

Etxeak eraikitzeke lanak bukatu dituzte Ugarteondon, Estartetxe kalea eta Basañez auzoaren artean, Artatza eraikina dagoen eremura arte. Plaza eta oinezkoentzako kalea ere egin dituzte etheen inguruan, hektarea erdi neurtzen duen eremuan. Zuhaitzak landatu dituzte eta egurrezko zubia egin dute Landabari errekatxoaren gainetik igaro ahal izateko. Hiri-altzariak eta argiztapena ere jarri dituzte.

UDALA ENTZUN EKIMEN BARRIA INTERNETEN

Herriari buruz gura dituzten ekarpenak eta kritikak egiteko aukera ematea du helburu interneten sortu duten *Udala entzun* egitasmoak. Zehazki, Udalarik kritikak eta ekarpenak egitea du asmoa, “*Leioan gauza asko dagoelako txarto, eta ez direlako egiten ari eurek uste bezain ondo*”. Auzoetako gaiak, Udalgaz zuzenean lotutakoak eta azpiegiturei buruz arituko dira webgune horretan, eta herritarrek eta elkarteek bertan parte hartzea gonbidatu dituzte.

Informazio gehiago:
<http://udalaentzun.wordpress.com>

DROGAMENPEKOTASUN ZERBITZUA BARRITUTA

Aurten barrikuntzakaz dator Drogamenpekotasun zerbitzua. Izan ere, EHUKo Leioako kanpuseko Ostalaritza Eskolako ikasleek ere parte hartuko dute, herriko gazteak eta horien gurasoak batera. Ostalaritzako 180 ikasleek drogak lan eremuan izan ditzakeen ondorio larriak eta arriskuak aztertuko dituzte, 180 lagun izango dira. Herriko 426 ikasleek parte hartuko du, bost ikastetxetakoak: Alzaga, Lamiako, Irlandesas, Txomin Aresti eta Mercedarias. Gurasoentzako informazio puntuak kokatuko dituzte ikastetxeetan, beren kezkei eta galderei erantzuteko. Udalak 35.000 euro gorde du programa honetarako.

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO
ERROTULUAK eta
INPRESIO DIGITALAK
egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

BASTARTEA

URDULIZ

Teléfono: 946 761 128

Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

OSABIDE HORITZ KLINIKAZ
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Odontozia
- Periodontia
- PADI

Bilabari 27, beheko eskainia
ALGORTA
Tf. 94 430 76 96

[erandio]

Jon Salvador > Sahara maratoiko irabazlea

“Elkartasun lasterketa da, baina hori bigarren mailan lotu da; atletak irabazi gura du”

Sahara maratoia irabazi du Jon Salvadorrek, maratoi osoa egin duen lehen saiakeran; markak hautsi ditu gainera. Aurretik maratoi erdiak ere irabazita zeuzkan Saharan. Herri horrek bizi duen gatazka nazioartean ezagutaraztea du helburu probak; errefuxiatuen hiru kanpamentu lotzen ditu, El Aaiunen.

—Basamortuan zehar igarotzen den maratoia da Saharakoa, nolakoa da?

—Saharar Errepublikaren egunaren tes-tuinguruan egin ohi dute. Hiru herri lotzen ditu, El Aaiunetik Smarara. Gogorra da, basamortua da eta tenperatura oso altuak daude. Zonalde harritsuak daude eta horietatik nahiko ondo egin daiteke lasterka. Baina dunak dau-den guneetan nahiko gogorra egiten da. Oihartzun handia dauka. Oso pozik nago emaitzagaz, oso zaila da-eta irabaztea. Orain arte argeliarrak izan dira jaun eta jabe, baina aurten fidatu egin dira; halere, zaila izango da barriro gertatzea.

—Egun horietan sahararren haimetan bizi ohi zarete gainera, eurakaz, ezta?

—Bai, lauzpabost lasterkari egon ohi gara haima bakoitzeako, eurakaz elkar bizitzen. Ez gaude ohituta bizitza egoera horretara, gogorra da baina moldatzen



Maratoiaren aurreko edizioetan maratoi bi erdi irabazita zeuzkan Salvadorrek

gara. Nazio jaira ere geratu ohi gara. Esperientzia oso ona, bene-benetan.

—Gataska konpontzeko bidean nazio-arte mugiarazi gura probagaz?

—Elkartasun lasterketa da, baina hori bigarren mailan lotu da; atletak irabazi gura du. Antolakuntza saiatu zen denok batera joan gintezen, baina gero, bakoi-tza berera doa. Argeliarrak irabaztera doaz, gogor ateratzen dira, eta hortik aurrera, ezinezkoa da elkartasuna; one-nak irabaz dezala da eta azkenean denok

lehiatzen gara. Saharar arazoan inplika gaitezke, baina proba, proba da.

—Ateratako diruagaz hainbat egitasmo ere gauzatzen dute.

—Bai, beti kirolagaz lotuta. Ikusgarria da, ezer ez daukatenei laguntzera zoaz eta. Gataska bat daukate ez dut ondo ulertzen zergatik ez den konpontzen. Nazioarteko herrialdeak inplikatu behar dira, baina batzuek bestelako interesak daukate eta ez dut konponbiderik aurreikusten epe laburrera. ○

Osasuna hobetuz Erandion Astrabuduak badauka Osasun Zentro barria; Goikoan laster zabalduko dute



Mezo kaleko 30.ean kokatu dute Astrabuduko Osasun Zentroa

Osasuna hobetuz doa Erandion, baina ez gara futbol taldeaz ari, osasun zentro- ez baizik. Otsailaren akabuan zabaldu zuten zentro barria Astrabuduan, antzi-nakoa txiki geratu delako, eta Goikoan, laster irekiko dute.

Mezo kalean kokatu dute Astra-budukoa, 1.360 metro koadroko orube-an. Auzoko 15.000 lagunek jasoko dute zerbitzua, eta EAEko Osasun sailak, 1,4 milioi euro inbertitu du egitasmoan.

Solairu bakarra dauka, 700 metro koadrokoa. Familiako medikuntzarako 4 kontsultategi, erizaintzako 5, pedia-triarako 2, emaginen kontsultategia eta erditzea prestatzeko gela bat dauka.

Horiek denak atenditzeko, barriz, Osasun Zentro zaharrean lan egin duten 9 mediku, 8 erizain, emaginak eta 5 administrari laguntzaile arituko dira.

Gainera, etorkizunean zentroa handi-tu eta zerbitzu gehiago eskaini behar iza-nez gero, bigarren solairua eraikitze-ko moduan egin dute eraikina. Astelehenetik barikura 08:00etatik 20:00etara dago zabalik. Zapatuetan, ostera, goizez baka-ririk, 09:00etatik 14:00etara.

Bestalde, Goikoa auzoan ere laster zabalduko dute Osasun Zentroa, eraikin soziokulturalaren beheko solairuan, aparteko sarreragaz. Hiru kontsultategi izango ditu, eta 105 metro koadro. ○

IKUSGAI PICASSOREN EMAKUMEAK KOADROAK

Pablo Picasso (Malaga, Andaluzia, 1881) margolariak emakumearen irudia landu zuen bere ibilbide artistikoaren barruan. Modelo anonimoak zein bere bizitza pertsonalari lotutako emakumeak izan ziren. Lan horietako batzuk ikus daitezke egunotan Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean. Francisco Javier de la Torre basauriarraren mosaikoak dira, Picassoren koadroak oinarri, tamaina handian eginak. Sortzailearen aztarnarik ez duten arren, oso interesgarriak dira, bai piezen biskositateagatik bai erabilitako ezohiko teknikagatik.

BURDINBIDEAREN MUSEORA TXANGOIA

Martxoaren 12ra arte eman daiteke izena Azpeitiako Euskal Burdinbidearen Museora urtearen parte hartzeko, Erandio Bidaiki bulegoan (San Agustin plaza). Txangoia hil honen 27an izango da. Goizeko 08:35ean aterako da autobusa Goikoatik, eta Astrabuduan eta Altzagan jasoko du jendea ondoren. Museoa bisita gidatua eginda, Astigarragako sagardotegi batean egingo dute bazkaria. Donostian igaroko dute arrastia. Erandiozterrek 27 euro ordaindu beharko dute, eta herrian errolatuta ez daudenek, 52 euro.

GIMNASIA APARATUAK ETA UMEEN JOLAS-TOKIA

Astrabuduan jarri dituzte gimnasia egiteko hainbat aparatu, kalean bertan, Madaripe lorategian. Auzotar guztientzako daude eskuragarri, baina nagusiei zuzendu dizkiete bereziki. Hiru aparatu dira: bizikleta finkoa, eta besoak eta hankak lantzeko beste makina bi. Udaletik azaldu dutenez, nagusiek bihotzerako onuragarriak diren ariketak “*modu suabe baina eraginkorrean*” egin ditzatela da asmoa. Baina etxeko nagusiez beste, txikiak ere dira zorioneko; izan ere, Lutxanako jolas-tokia hobetuko eta handituko dute, metro geltokiaren ondoan.

Torreña 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iretiaalgorta@gmail.com

irati

OPARIAK MODA GAZTEA

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (barrera, Jeta Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

Zure publikitatearen hemen
Zure publikitatearen hemen
Zure publikitatearen hemen

Tf. 94 491 13 37

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?

ETXEBIZITETARAKO IGOGAILUAK
ESKAILERA IGOGAILUAK
PLATAFORMAK

ARLAN
ASCENSORES

Arazoei agur... Tf. 902 54 08 54

www.arlan.biz

JAI BATZORDEAREN LEHEN BILERA, HILAREN 11N

Herritarrei, taldeei, kolektiboei eta elkartei deia luzatu die Udalak Jai Batzordean parte hartzeko, bilkurakaz hasiko dira eta. Lehena martxoaren 11n egingo dute, eguenaz. Arrastiko 19:00etan hasiko da, Kurtzio Kultur Etxean.

ALDUNDIAK 390 ZUHAITZ EMAN DIO UDALARI

Udalerrii tokiko zuhaitzak emateko plana onartu du Bizkaiko Foru Aldundiak, Zuhaitz Eguna ospatzeko. Ondorioz, hainbat espezieetako 390 zuhaitz eman dio Sopelari: haritzak (100), haritz amerikarrak (30), lizarrak (100), astigarrak (50), gereziandoak (50), pagoak (30) eta urkiak (30). Zuhaitzentzako haztegia landatuko dituzte, Urko kirolgunean, eta datozen urteotan zuhaitz gehiago landatzeko asmoa ere badute. Azken helburua dute herriko hainbat gune birpopulaztea, tokiko espezieakaz. Beraz, zuhaitzek indarra hartu ahala, lekuz aldatuko dituzte.

RISE TO FALL TALDEA, ZUZENEKO DVD-A

Otsailaren 26an aurkeztu zuten lehen diskoa Sopelako Rise to Fall taldekoek Bilborock aretoan, *Restore the Balance* izenekoak. Ikusleek bertan grabatutako irudiakaz DVD bat osatzeko asmoa daukate, StereoZona bitartez; edonork parte har dezake sakeleko telefonoaren edota argazki kameraren bitartez grabatzen, eta imajinak, azken muntaiari erabiliko dituzte. Ikusleen ikuspuntua jaso gura dute ekimen horregaz. Gainera, grabatutako material guztiaren artean abesti batena erabiliko dute bideoklipa egiteko. Gogoraz dezagun, Rise to Fall taldeak Bilbo Hiria lehiaketa irabazi zuela iaz. Ekainean, BBK Live jaialdian arituko dira.

Informazio gehiago:
www.myspace.com/risetofallmetal,
www.stereozona.tv edo www.stereozona.com

Kulturaz blai martxoan

Itzartu elkarteak Kultur Astea antolatu du hilaren 7tik 13ra, antzerkia eta herri bazkaria tarteko



Magnolias de acero lana antzetzuko du Itzartu Antzerki Taldeak

Negua bukatzeaz dagoela kaleak astintzeko gogoia pizten hasi da. Itzartu elkarteok ekin diete ekimenak antolatzeari, Kultur Astea egiten dabilza martxoaren 7tik 13ra, Kultur Etxean.

Magnolias de acero lanaren antzezpenagaz ekin diote asteari, hilaren 7an. Martxoaren 8an, barriz, Hasint'o faki-rrak eskainiko du ikuskizuna, 19:00etan; umorezko antzerkia izango da. Biharamunean, hilaren 9an, tarta lehiaketa egingo dute 17:30ean, baina Jubilatuen Etxean. Sariak banatu ondoren, dantzaldia egongo da.

Eguaztenean, hilaren 10ean, pelikula bat botako dute kultur etxean, 18:00etan. Eta eguna 11n, Olerki Lehiaketa eta Kontakizun Laburren Lehiaketa egingo dituzte. Errezitaldia eta sari banaketa izango da, baita margo lehiaketaren sari banaketa ere. Hori dena 18:00etatik aurrera.

Hurrengo egunean Cristina Castelloren *Cruzadas cotidianas* bakarriketa entzuteko aukera egongo da, 19:00etan. Eta asteagaz bukatzeko, bazkaria egingo dute Euskal Sena jatetxean. Ekimen denak dira doakoak. ○

Alberto Abujeta > Munarri Atletismo Taldeko idazkaria

“Herri lasterketak zaleak sortzeko eta atletismoa bultzatzeko balioko du”



Martxoaren 11 arte eman daiteke izena lasterketan: munarriat@hispaivista.com

Sopelako VIII. Herri Lasterketa egingo dute martxoaren 14an, domekaz. Munarri Atletismo Taldeak antolatu ohi du, Udalaren laguntzagaz. Alberto Abujeta da taldeko idazkaria eta hark kontatu digu ekimenaren helburua eta zer egin behar den parte hartzeko.

—**Zortzigarrena dagoeneko, baina zergatik egiten duzue herri lasterketa?**

—Egungo antolatzaileok duela hiru urte hartu genuen ardura hori, aurrekoei lekukoa hartu genien; Francisco Javier Corrales Munarriko presidentea, Jose Vicente Ojinaga zinegotzia eta hirurok gabilza lan honetan. Herriko kaleetan zehar lasterketa egin eta kirola sustatzea da helburua. Izen-emotea doakoa da, eta sariak dirutan.

—**Gero eta jende gehiago animatzen da korrika egiten, ezta?**

—Bai, urtetik urtera parte hartzaile gehiago dago, umeak batez ere. Iaz hirurehun batek egin zuen lasterka, eta

ia 1.000 lagunek orotara. Gero eta andrazko gehiago ere animatzen da korrika egiten. Eskualdekoek ez ezik, kanpo lasterkariak ere parte hartzen dute; Madriletik ere etorri izan dira. Laguntzaileak ingurukoak izaten dira. —**Herritarrek atletismora erakartzeko ere balioko du lasterketak?**

—Laster kirol-azpiegitura barriak egingo dituzte herrian, Ugeragan. Atletismo zelaia ere egingo dute; beraz, zaleak sortzeko eta kirola bultzatzeko balioko du ekimenak, hori da gure egitekoa.

«Urtetik urtera parte-hartzaile gehiago dago, umeak batez ere»

—**Zer egin behar da parte hartzeko?**

—Hainbat maila dago, luzera desberdinakaz. Maila bakoitzeko eta herriko lehen hirurek eskuratuko dituzte sariak. Martxoaren 11 arte eman daiteke izena Kultur Etxean, edota gure helbide elektronikora mezua bidaliz. ○

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide
pinturak



Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturbarria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA
iKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email: sopela@ikastola.net



EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

KALE GARBIA, DESKONTU HANDIAK; THE IMAGEN

Azken egunotan zalaparta edo oihartzuna ateratu du The Image dantzalekuaren kanpaina barriak: *Ez utzi txerri esaten*. Zabor asko pilatu ohi zen asteburuetan dantzalekuaren inguruan, aldameneko aparkalekuan; jendea bertan egon ohi da dantzalekura sartu aurretik. Egoera konpondu guran abiatu dute kanpaina, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatearen eta Metro Bilbaoren laguntzagaz. Edan ondoren sortutako zaborra jasotzen eta edukiontzietara botatzen dutenei deskontua egingo diete dantzalekura sartzeko. Edukiontzia dantzalekuaren sarreran daude eta Mankomunitateak jarri ditu. Gazteak informatzeko liburuxkak banatu ohi dituzte, baita barriro erabil daitezkeen poltsak ere, zaborra edukiontzietara eroan ahal izateko.

KOLITZAN KANPALDI LIBREA, GAZTELEKUGAZ

Enkarterrietako Kolitza mendira urteera antolatu du Gaztelekuk, martxoaren 27 eta 28ko astebururako. Baina izena eman behar da hilaren 18a baino lehen, plaza mugatuak dira eta. Kultur etxeetan apuntatu behar da. Herrian errolatuta daudenek 5 euro ordaindu beharko dute, eta errolatuta ez daudenek, 7 euro. Asteburuan bertan lotarako zakua, linterna, hotzerako arropa egokia, afaria eta mendiko botak eroan beharko dira.

Informazio gehiago:

94 668 21 43 edo 94 668 11 79

Garaizar barrikuntzak

- Igeltsaritzak orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • garaizar@euskalnet.net
Bista kalera 1• ALGORZA

Kiroldegia Karabiganen

Kirolerako etorkizuneko bi azpiegituretako bat da eta **566.000 euro** inbertituko dute oraingoz



Saskibaloia, eskubaloia edota futbitoia praktikatzeko kantxa hartuko du azpegitura barriak

Kiroldegi barria eraikiko dute Karabiganen, hareazko futbol zelai dagoen tokian, beste zelaiaren ondoan. Herriko kirol eskaintza zabaldu gura du Udalak eta Karabiganekoa izango da etorkizuneko bi azpegituretako bat. Berango erdialdean beste kiroldegia bat egiteko asmoa dauka, igerilekuagaz eta gimnasioagaz.

Hasieran 566.000 euro inbertituko du Udalak, Plan E egitasmoak. Horregaz lehen fasea finantzatu du; eraikina bera, eta aurrerantzean, diru gehiago inbertitu beharko du hornikuntzarako.

Porlanezko eta egurrezko eraikina izango da, prefabrikatua; 1.000 metro

koadro izango du. Boleibola, futbitoia, saskibaloia edota eskubaloia praktikatzeko kantxa bat izango du, eta gradak. Aldagelak, biltegia eta komunak ere egingo dituzte.

Karabiganeko aparkalekutik sartu ahalko da kiroldegira, eta horrela, "Iturriagako zelairako sarbidea konponduko du", Anabel Landa alkateak dioenez. Beste helburu bat ere badauka egitasmoak: Intxaurraga auzoaren eta Sabino Arana kalearen arteko oztopo arkitektonikoa ezabatzea. Izan ere, metro geltokiaren ondoan kokatu gura du Udalak aipatu bigarren kirol azpegitura. ○

a2.Alzheimer elkarteak > Jabier Mercader/Estela Heredia

“Alzheimer gaixoen senideen elkargunea izateko jaio gara”



Estela Heredia eta Jabier Mercader a2.Alzheimer elkarteak kideak

Urte betez Uribe Kostako egoera aztertzen egon ostean, otsailen martxan jarri zuten *a2.Alzheimer elkarteak*. Alzheimer gaixotasuna pairatzen dutenen zein horien senide eta inguruko elkargunea izateko helburuz jaio da; terapia ez-farmakologikoak erabiliko dituzte eta psikoestimulazio zentroa zabaltzeko asmoa daukate.

—Zergatik sortu duzue elkarteak?

—Helburu bigaz jaio gara. Epe motzera, alzheimer gaixoen senideen elkargunea sortu gura dugu; gehienetan, oso galduta eta estresatuta daude eta euren beharrak asetu gura ditugu. Epe luzera, psikoestimulazio zentroa jarri gura dugu martxan, gaixoentzat.

—Zer egiteko asmoa duzue?

—Senideakaz tailerrak, hitzaldiak, zine-zikloak eta bestelako ekintzak egin gura ditugu. Bestalde, zerbitzu integra-

la eman gura dugunez, lehen aipatutako psikoestimulazio zentroa jarriko dugu martxan; horretan, gaixotasunaren garapena leunduko duten terapia ez-farmakologikoak erabiliko ditugu: psikomotritizitatea, musikoterapia e.a. —Zelako harrera izan duzue? —Erantzuna ikaragarria izan da. Ingu-

«Terapiaez-farmakologikoak erabiliko ditugu gaixoakaz»

ru honetan ez dago alzheimerre lantzen duen ezer; are gutxiago terapia ez-farmakologikoakaz. Bagenekien behar handia zegoela, baina erantzuna uste baina handiagoa izan da. Quiron ospitale berritik deitu digute, gugaz elkarlanean aritzeko prest daudela esanez. ○

Harremanetarako: 608 152 816/
a2.alzheimer@euskalnet.net/
www.euskalnet.net/a2.alzheimer

tanta.
estetika



BIBRAZIO PLATAFORMA BARRIA
(Berme profesionalagaz)

20 eta 50 euroko bonoak
(10min-ko saioak)



Basagoiti etorbidea 85 (Algorta)
Tf: 645 739 780

Zure beharren araberako ordutegia

SAHARAKO UME BAT HARTZEKO FAMILIA BILA

Gorlizko Udalak *Oporrak Bakean 2010* harrera programan parte hartuko du; horri esker, Saharako umeek uda gure artean emateko aukera izango dute, basamortuko tenperatura altuetatik urrun. Aurten, umea etxean hartuko duen familia bat behar dute. Familia, umearen mantenuaz arduratu beharko da soilik. Interesatuta dagoena, udal bulegoetara hurbil dadila apirilaren 20a baino lehen.

LH-KO IKASLEENTZAT TXANGOAK APIRILEAN

Lehen Hezkuntzako ikasleentzako txangoak antolatu ditu Mankomunitateak apirilaren 7, 8 eta 9rako. Basondo, Santimamiñe, Egino multiabentura parkea, Sorginetxe trikuharria, Zestoa eta Ekainberri bisitatuko dituzte. Urteerak goizez eta arratsaldez izango dira eta Mankomunitateko herrietan errolatuta dauden gazteak joan ahal izango dira. Izena emateko, Mankomunitateko bulegora hurbildu (Gatzarriñe 2, Sopela) edo e-posta bidali beharko da martxoaren 10etik 12ra.

ERABILITAKO LIBURUAK BILTZEN LIBURUTEGIAN

Apirilaren 23an Liburuaren Nazioarteko Eguna dela aitzakitzat hartuz, *Erabilitako Liburu Azoka Txikia* egingo dute apirilaren 19tik 30era Plentzian. Horretarako, erabilitako liburuak biltzen hasi dira Udal Liburutegian, goizeko 10:00etatik 14:00etara eta arrastiko 15:00etatik 20:00etara.

PLENTZIA

Diseina ezazu Plentziako 2010eko jaietarako azala



Plentziako jaietarako azalak apirilaren 12a baino lehen aurkeztu behar dira

Plentzia Telebistak antolatuta eta Plentziako Udalaren laguntzagaz, Plentziako jaietarako portada lehiaketa egingo dute beste urte batez. Teknika librea erabili ahal izango da; lanek bete beharreko baldintza bakarra, *"Plentziako Jaiak 2010"* testua idatzita izatea da.

DIN-A3 euskarri zurrunean zein digitalean, CD batean TIF formatuan entregatu behar dira lanak Goñi Portal Kultur Etxean, 2010eko apirilaren 10a baino lehen. Datu pertsonalak (izen-abi-

zenak, helbidea eta telefonoa) dituen gutunazal itxi batean aurkeztu behar dira.

Diseinu irabazleak 200 euroko saria jasoko du apirilaren 23an arrastiko 19:00etan Goñi Portalen egingo den sari banaketan. Aurkeztutako lan guztiak, erakusketa egingo dute apirilaren 16tik 30era; lanak goizeko 11:00-13:00 eta arrastiko 16:30-20:00 egongo dira ikusgai. ○

Informazio gehiago: 94 677 55 41

Mar. 8 - Mar. 22

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

BERANGO

► **Alain Garcíaren akuarelak.** Berangoeta Kultur Etxean. Martxoaren 14ra arte.

LEIOA

► **Welcome to Palestine.** Kalian elkartean. Martxoaren 14ra arte. Hitzaldia martxoaren 11n, 21:00etan.

PLENTZIA

► **Fabien Pichon argazkiak.** Goñi Portalen. Martxoaren 15era arte.

GETXO

► **Manuel de la Concepcion Ferreiraren argazkiak.** Algortako erakustaretoan. Martxoak 10etik 27ra.

ANTZERKIA

GETXO

► **Kontularien kluba.** Algortako Kultur Etxean. Martxoaren 12an, 19:00etan. Doan.

GORLIZ

► **Ipuin kontaketa: Tartalo eta sorgina.** Ikastetxean. Martxoaren 13an, 18:30ean.

ERANDIO

► **Kanpaiak jo bitartean.** Altzagako azoka zaharrean. Glu-glu taldea. Martxoaren 16an, 20:00etan. Doan.

MUSIKA

LEMOIZ

► **Dantza Klasiko taldearen emanaldia.** Kultur Etxean. Martxoaren 12an, 17:30ean.

Martxoaren 10ean igaroko da Emakumeen Mundu Martxa Uribe Kostatik

► **Martxoak 8**
Emakumeen III. Mundu Martxa eskualdean
Emakumeen Eguna da eta ekimenak egiten dabilta herriz herri; eskualdeko mobilizazioa Algortako Geltokia plazatik abiatuko da 20:00etan. Baina aurtengo martxoaren 8a berezia da, Emakumeen Mundu Martxaren III. ekimena abiatu da-eta egun horretan, mundu osoan aldi berean. Gure eskualdetik martxoaren 10ean igaroko da, eguaztena. Areetako Bizkaiko zubian hartuko diote lekukoa emakumeek ezkerreko aldeko. Kotxe karabana abiatuko dute ondoren Erandioko Altzaga auzoraino. Bertan gauzatuko dute ekitaldia, metroa plazan. Gainera, herrietan egin horma-irudiak erakutsiko dituzte. Bukatutakoan, Bilborantz abituko da martxa.

• **Non:** Uribe Kostan • **Noiz:** Martxoak 10, eguaztena

GETXO

► **Bilboko Orkestra Sinfonikoa.** Algortako El Redentor elizan. Martxoaren 12an, 20:00etan. Doan.
► **San Patrizio folk kontzertua.** The Piper's Irish Pub tabernan. Martxoaren 18an, 22:00etan. Doan.

ERANDIO

► **Dantzaldia orkestragaz.** Altzagako azoka zaharrean. Martxoaren 14an, domeka, 17:30ean.
► **Bilboko Orkestra Sinfonikoa.** Josu Murueta Kultur Etxean. Martxoaren 20an, 19:30ean. 2 euro.

ZINEMA

PLENTZIA

► **To shoot an elephant.** Goñi Portalen. Martxoaren 9an, 19:00etan.

GETXO

► **Lluvia de albondigas, igandetako haur zinea.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Martxoaren 14an, 12:00etan eta 17:00etan. 2,10 euro.

► **Licencia para espiar, igandetako haur zinea.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Martxoaren 21ean, 12:00etan eta 17:00etan. 2,10 euro.

BESTEAK

SOPELANA

► **Mugikortasun plana, foroa.** Kurtzio Kultur Etxean. Martxoaren 10ean, 19:30ean.
► **Mahai-ingurua: Emakumeak kirolean.** Kurtzio Kultur Etxean. Martxoaren 17an, 19:00etan.

URIBE KOSTA MANKOMUNITATEA

► **Oporretan txangora umeentzako ekimena.** Hainbat aukera, apirilean. Izen-emotea martxoaren 10etik 12ra: www.uribekosta.org.

PLENTZIA

► **Lan eskubideei buruzko hitzaldia.** Astillero enparantzan, martxoaren 11n, 17:30ean.

ERANDIO

► **Emakumeen egunaren aldeko jaia.** Altzagako azoka zaharrean. Martxoaren 12an, 18:30ean.
► **Aholkularitza sexologikoa.** Gazte Informazio Bulegoan. Martxoaren 26an, 18:00etatik 20:00etara.

BERANGO

► **Bideotuning ikastaroa.** Gazteleku. Martxoaren 13an, 20an eta 28an. Doan.
► **Energia aurrezteko ikastaroa.** Nagusien Etxean. Martxoaren 12an.
► **Kolitza mendira urteera.** Martxoaren 27an eta 28an. Erroldatuek 5€, erroldatu bakoek 7€. Izena eman hilaren 18a baino lehen.

GETXO

► **Sagardotegira Egizugaz.** Martxoaren 13an. 38 euro. Izena emateko: 619 935 541.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA



KLIMATIZAZIOA
HOZTEKO, GIROTZEKO edota BEROTZEKO INSTALAZIOAK
(ingeniaritza / instalazioa / artapena)
BERANGO (BIZKAIA) vasa@vasa.biz 94 668 1551 www.vasa.biz
ENERGIA INGENIARITZA
ENERGIA AUDITORIAK
GEOTERMIA



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



Lurren metamorfosia

Bertakoak izanda ere, askok ez dituzte orriotako argazkietan agertzen diren parajeak ezagutuko. Etxebizitza mordoxka egiten ari dira Sopelan; salmenta askekoak batzuk, babes ofizialekoak besteak. Zaila egiten da irudikatzea, zelai horietan sasiak eta zizareak besterik ez zeudenean, hartzen zuten itxura. Larba tximeleta bihurtzen denean bezala, Uribe Kostako lurrek ere metamorfosia bizi dute.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Astrabuduan, ez da ziklogenesia izan

Haizete handiak iragarri zituzten otsailaren azken astebururako, ziklogenesi lehergarria, izen beldurgarria. Baina iragarpenak ia hutsean lotu ziren toki askotan. Astrabuduko fabrika hau ikusita, pentsa liteke hark harrapatu zuela zikloi osoa, baina ezta gutxiago ere. Aspaldi utzi zuten fabrika hori, nabaria da inork ez diola egin jaramon handirik. Horrelako eraikin asko dago gure inguruan, hutsik, ezertarako erabiltzen ez dituztela. Baina pentsatzen jarrita, gauza askotarako baliagarri izan litezke, beraz, zergatik galtzen utzi?

[berbetan]

Zalóa Borda (Getxo, 1978) ETB3 kate tematikoko Sail Artistikoko arduraduna da. Arte Ederrak ikasi zuen getxoztarrak eta bederatzi urte daroaz ETB enpresan; hasieran albistegietan, gero kirolen arloan eta azkenik orain dela urte eta erdi inguru sortu zen oro har ume, gazte eta kulturari begirako ETB3 katean. Kirol zalea dela azaldu digu, futbol zalea dela jakinarazi digu “txoritxoren” batek eta zelan ez Athletic zale amorratua. Lan egiten duen euskarazko kate tematikoaz, audientziez, bere lanbideko emakumearen egoeraz e. a. berba egin digu getxoztarrak.

Zalóa Borda

Hirugarren kateko begia

Testua: **I. Sagarmínaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Zertan jardun duzu ETB3ra heldu baino lehenago?

—Egia esan, zorte handia izan dut, Arte Ederretako ikasketak amaitu eta ETBrako elkarrizketa egin nuen. Hasieran bekadun, albistegietako erre-dakzioan, eta gero Kirol arloan, ostean ETB3ra; beno, aurretik Factor Humano saioan ere ibili nintzen. Zortea izan dut, bai, sartu nintzen hemen edo han baina barruan behar egin dut.

—Baina lehenago, guk dakigula, berbarako Pou anaien “7 pareta 7 kontinente” dokumental saioetan ere, Jabi Baraiazarra areetarraren alboan, parte hartu duzu, ezta?

—Kiroletan nenbilenean egin nuen, bai, Jabi “Baraia” eta Pou anaiakaz. Bidaia bakoitza errealizazio taldeko kide batek lantzen zuen, nik lan globalaz gainera, batez ere Antartikaren gaineko kapitulua egin nuen; gainontzekoetan ere parte hartu nuen, baina batez ere horretan.

—Horren antzeko beste ekimenen

batean parte hartu duzu?

—Ez dakit, orain ez daukat gogoan... Zuk aipatu ez bazenu, hori ere ahaztuko zitzaidan! Gaitza da apur bat atzerantz begiratzea, azkenean 9 urte daroat hemen, eta ahaztu egiten zait zer egin dudan eta zer ez; baina azpimarragarria legez, eta gogoratzen dudanetik, apaitu duzun hori...

—Zehazki zertan datza zure eginbeharra ETB3 katean?

—Sail artistikoko arduraduna naiz,

“Nahiz eta gure publikoa ez izan oso handia ahalegintzen gara egiten duguna publiko zehatz horri eskainia izateko”

ulertzeko moduan, koordinatzaile artistikoa, errealizazio arduraduna, azken batean. Nire eginbeharra... egia esan, apurtxo bat danatarik egiten dut. Errealizazio taldeko, zelanbait esateagatik, buru naiz; talde txiki eta jatorra dugu, ezin kexatu! Talde hori koordinatzea da, bakoitzak zer egin behar duen esatea, nire lana, zuzendariagaz adostu ostean,

noski. Lan-taldearen lana gitxi gorabehera hurrengoa da: alkarrizketak grabatu, edo programak, editatze lan piloa... Ez naiz grafista baina grafista lana ere egiten dut... Zelanbait ETB3n ikusten den dana, grafismo eta itxura aldetik esan gura dut, gitxi gorabehera kontrolatu behar dut; baten batek kanpotik programaren bat ekartzen badu esan behar diot hau horrela bai, ala horrela ez... Horrez gainera, nik egiten ditut beste “kareta”, “rafaga” e.a. piloa, holan

esatearren, irudiaren gaineko edo inguruko guztia kontrolatzea da nire lana.

—Ez dira 2 urte (aurtengo urriaren 10ean beteko dira) ETB3 sortu zenetik...

—Hasieratik nago bertan. Kiroletako errealizazioan nengoela, hango produktorea zena orain ETB3ko zuzendaria da. Oraingo postua eskaini ziotenean ea



beragaz joango nintzen galdetu zidan; eta hasieran beldurragaz onartu nuela esan behar dut, baina orain oso gustura nago, nagoen taldea oso ondo dago.

—Umeei eta gazteei begirako katea legez aurkezten da ETB3; Betizu, Gaztea eta EITB Kulturako programazioa jasotzen du...

—Iñako Gurrutzaga gure (kateko) zuzendariak aukeratzen du edukietan zer sartuko dugun eta zer ez, eta horiek hautatzeko nolabait gure irizpide nagusiak edo hauek dira: hiru alor daude, bata, Betizu, horretan umeentzako marrazki bizidunak dira nagusi; bestea, Gaztea, klilp-ez gain gazteen perfilean sartzen diren sailak eta, umeei baino, nerabeei begirako marrazkiak eta sartzen dira; eta azkena, EITB Kulturari dagokiona, kultur kontu danak, adibidez: *eitbkultura* saioa, *Haratago*, *Sautrela*, edota *Orain* programak, eta *Film Laburrak* saio barria ere bai; horiek guztiak azken alor horretan sartzen dira eta normalean *primetime* orduategian emoten dira; hau da, *primetime*-ko tartea gordetzen ditugu horrelako saioetarako.

—*Primetime*-arena aipatuta, egia da, ETB1en “desordutan” ikusi ahal diren saio asko ordutegi “normalean” emoten dituela ETB3k; saio berberak, errepikapenak izanda ere, ikusle aldetik aukera handiagoa eskaintzen du ordutegi duinean ikusteko aukera eskaintzeak...

—*eitbkultura* saioa bera ETB1en goizaldean, 00:30-01:00 aldera, eskaintzen da, ordu oso txarrean; ETB3n ez daukagu zelanbait esateko, audientzien presio hori, nahiz eta alde horretatik ez gabiltzan hain txarto ere; horregatik aukera dugu beste kate batzuetan eskaintzeko aukera ez luketen saioak emoteko, edota ordu hain onean emoteko aukera ez duten saio horiei ordutegi hobea eskaintzeko. Nik uste, alde hori oso ondo zaintzen dela ETB3n.

—Bestalde, ETB3rako propio eginak eta bakarrik zuen katean ematen ditu-

zuen saioak ere badituzue: *BURP!*, *Nick dut nik*, *Orain* e.a.

—Izatez, guk nahiko eduki ditugu, gureak izan direnak; gero ETB1ek errepikatu dituenak. Adibidez: *BURP!*-egaz hasi ginen, maite duzun ala gorroto duzun programa horietakoa da, baina, jendea galdezka entzuten duzu “*BURP! hori, baina hori zer da?!*”, gitxienez lotzen

“Gureak diren apustuak, saiakerak baditugu, ETB1en ere emoten direnak; BURP!, Nick dut nik, Munduan Gaur...”

da programagaz... Edo *Martina* saioa ere eduki genuen, niretzat programa oso berezia zena; edo *Nick dut nik*, web guneak, blogak, oro har interneten ingurukoa; gainera saio hori izan zen estatu mailan lehenengoa zuzenean *Twitter* mezuak erakutsi zituen, *sms* bat bidali beharrean, eta ordaindu beharrean, *twitter*-eko mezuak zuzenean sartzeko programa egin genuen; horrek ere nahiko oihartzun ona izan zuen, mezu piloa jaso genituen esanez “*a zer puntazoa!*” e.a. Geureak diren apustuak eta saiakerak badauzkagu, bai.

—Eta berbarako *Teknopolis* (zientziaren gainekoa), *Kalifornia* (alkarriketa saioa), edota *Kerman mintzalagun bila* ETB1ekoak ala bien artekoak dira? —*Kerman*... adibidez kate biera da, hau

“Kate tematikoa gara, ez daukagu, zelanbait esateko audientzien presio hori, nahiz eta ez gabiltzan hain txarto”

da ETBn orokorrean hartu den erabakia, guk ere emoten dugu, baina ez da izatez gurea. Gurea den beste bat, aipatutakoakaz gainera, *KTM* kirol saioa da; nahiz eta gureak diren ETB1en ere emon ahal dira, eta *Teknopolis* ere gurea da, nahiz eta ETB1en emon, edota *Sautrela* ETB1en ahal da emon, baina ETB3koa

da. *Ipupomamua* biona da, erdibana egindako apustua.

—Askok begi onez hartu duten beste bat Mundua gaur saioa da; gaztelerazko *Mundo.hoy* interesgarria euskaraz aurkeztua.

—Amaia Kaierek aurkezten du, eta hori ere geurea da. Euskaraz eskaintzea izan da apustua horretan.

—Kiroletako *KTM* aipatu duzu, horren albotik arreta merezi dute elur kirolei begirako *Mara-Mara* saioak edota errugbiari eskaintzen diozuen tarte zabalak; irizpide bereziak, barritzaileak jarraituz...

—Saiatzen gara, badaukagu halako filosofia ETB3n, beno Iñako gure zuzendariak, zortedun gara horretan, hau da, nahiz eta gure publikoa ez izan (kopuruan) oso handia, ahalegina egiten dugu egiten dugun hori publiko zehatz horri eskainia izateko, adib.: *Mara-Mara* eskaintzen duen jendearentzat da, pisten egoeraren barri emoten dugu, eta jendeak esaten digu “*asteburuan joateko asmoa badaukat, programa ikusi, eta badakit joan ahal naizen, edo beste norabait...*”, eta halako kontuak. Errugbiagaz ere bar-

din, ez du inork emoten, guk bai. Saiatzen gara halako gitxiengoentzako gauzak egiten, baina ahal dugun heinean, gure aurrekontua oso murrizta da, orduan... Bestalde, produktora nahiko gazteak lan egiten dugu; eta saiatu saiatzen gara, osterantzean, gainerakoak...

—Getxo aldean errugbizale asko pozik

egongo da, ezta?

—Bai, hasieran esaten zuten, “*a! bai? egingo duzue?*”, baina gero pozik, bai. Gero, dirudiena baino gaitzagoa da gauzak egitea eta ateratzea, baina beno... gitxienez gu saiatzen gara.

—Ikusle-kopuruei eta kasu handia egiten diozue? Presio handia egiten ahal dizuete horregaz? Hau da, hainbatetan entzuten den “audientzien lehia” jasaten duzue?

—Lasaitxoago gabiltza. Kate tematikoa gara, baina TDTn sartzeko bagara horrelako zazpi mila daude! Eta zazpi mila horien artean banatzeko “pastela”... bakoitzarentzat gitxi lotzen da! Guk beste kate tematiko batzuek izan dezaketen antzerako audientzia izan dezakegu, egia esan, nahiko ona da gurea, hasieratik jendeak nahiko harrera ona egin dio ETB3ri; baina gure neurrian, ezin dugu

alderatu ETB1eko edo ETB2ko audientziakaz. Halere, gurea nahiko ona.

—Alkarriketa argitaratzen denerako martxoaren 8aren bueltan ibiliko gara; zure lanbidean eta lantegian zelakoa da andrazkoen egoera?

—Gure departamentuan lau gara, mutil bi eta neska bi, beraz, zentzu horretan nahiko ondo. Eta hemen, ez nuke esan-

“Nire kasuan, inoiz ez da diskriminaziorik egin neska izateagatik; lan honetan orokorrean ez gabiltza hain txarto”

go desberdintasun handirik dagoenik. Nire kasuan behintzat ez dut inolako jarrera desberdinik izan. Kiroletan ere ibili naiz, eta futbola asko gustatzen zait, orduan, zorte hori ere izan dut! Baina ez neska izateagatik. Zentzu horretan he-

mendik nahiko ondo gabiltzala uste dut, edo neuk behintzat ez dut sufritu hori. Baina, ez dakit. Egia da, datozen bekadunen artean, oso berezia da kasua, gehienak neskek baitira; baina hori unibertsitatean ere neska gehiago direlako da. Gero, zeintzuk hartzen dituzten eta zeintzuk ez... Neure kasuan, ziurtatu ahal ditut, inoiz ez dela diskriminazio ez positi-

aldizkaria **etxean** jaso gura baduzu


HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....
 Kalea & zenb.....Herria.....
 e-mail.....Telefonoa.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro beste kopuru bat euro
 Kontu zenbakia (20 digito).

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□


UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kuba / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz / tf. 94 491 13 37




Ojangurenen bilduma

Balio historiko eta antropologiko zenbazezina duen bilduma osatzea lortu zuen Indalecio Ojangurenek (Eibar 1887-1972). Mendizale amorratua zen eta Euskal Herriko txokoetan egindako mendi urteera eta txangoetan atera ohi zituen argazkiak. Gipuzkoako Foru Aldundiak 1966. urtean eskuratu zuen 8000 argazki baino gehiagoz osatutako bilduma; Gipuzkoako Artxibo Orokorrean digitalizatu eta Koldo Mitxelena Kulturguneak herritarren eskura libreki kontsultatzeko utzi zuen. Aukeratutako en artean azpimarratzekoak: 1933ko Autonomi Estatutuko hauteskundeetan Eibarren hartutakoa eta Txirrita eta Saiburu bertsolariena.

Argazkiak: **Indalecio Ojanguren** / www.guregipuzkoa.net









BETIKO

IKASTOLA

GURE GAURKO
ETA BETIKO
IKASTOLA

- 0 eta 16 urte bitartean kaleratutako hezkuntza euskaraz.
- Ingeleza 4 urtetik, frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zainza.
- Eskolaz kanpoko akibitate ugari.
- Leioako ikastolen Elkartaren ikastola bakarra.



Deitu eta informazio zailtzeko
TF: 94 464 23 64
94 464 33 97
Fax: 94 464 22 95
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GARRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
TF. 94 460 70 84

[zinema]

Komunika Sur martxan

“Komunikabideetan agertzen ez den Hegoa”, gogoetarako film laburren lehiaketa



Film Laburren lehiaketa iragartzeko kartela

Iaz 20 urte bete zituen Euskadi-Cuba GKEk abian ipini du *Komunika Sur*. *Komunikabideetan agertzen ez den Hegoa* I. bideo lehiaketa. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, film laburren lehiaketaren helburua ondorengo da: “batetik, komunikabide handiek isilarazten dituzten Hegoaldeko herrialdeetako errealitateak eta gaiak ikusaraztea, eta, bestetik, ikuspegi kritikoa izango duten ikus-entzunezko materialen sorrera bultzatzea, hedabide handiek Hegoaldeko gatazka eta arazoei buruz zabaltzen dituzten bertsio ofizialak auzitan jartzeko”. Bizkaiko Foru Aldun-

diak finantzatzen duen “*Kuba, uharte solidarioa. Hego-Hego lankidetzak, Milurteko Garapen Helburuak lortzeko bidean*” kanpainaren baitako ekimena da Komunika Sur lehiaketa.

Film laburren (gehienez 20 min) lehiaketa horretarako dokumental, animaziozko zein fikziozko lanak aurkez daitezke DVD euskarrian (Prim kalea 43 behe-ekerra; 48006 p.k., Bilbo helbide-

«**Dokumental, animazio edo fikziozko lanak aurkezteko epea apirilaren 15era arte**»

an) 18 urtetik gorako eta Euskal Autonomia Erkidegoko bizilagunek. Lanak euskarazkoak zein gaztelaniazkoak izan daitezke eta aurkezteko epea apirilaren 15ean amaituko da. Lan bakarra sarituko dute eta hori zein izango den erabakiko duen epaimahaia osatuko dute GKEko eta *Cubainformacion TV* telebistako lagun bik eta Kubako San Antonio de los Bañoseko *Escuela Internacional de Cine y TV* eskolako profesional bik.

Emango duten sari bakarrari dago-kionez, hurrengoan datza: hiru pertsona Kubako Brigada batera joateko bidaia aurtengo udan (sarian barne bidaia, egonaldia eta lantegiak; balioa 1.400 euro pertsona bakoitzeko). ○

Informazio gehiago: www.euskadicuba.org

Ujribefm
107.8
Gorliz Irratia

Estilo ezberdinak aukeran

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Scach-en folka, La Fanfare du Belgistan-en ijito jazz



La Fanfare du Belgistan taldea

Hil honetarako hainbat musika emanaldi iragarri dituzte eskualdean, baina duten berezitasunagatik horietako hirutan ipiniko dugu arreta. Lehenengoagaz hitzordua hilaren 12an, barikuan, izango da Redentor elizan (Algorta), bertan Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren doinuakaz gozatzeko aukera egongo da 20:00etatik aurrera (sarrera doan).

Hurrengo egunean, hilak 18, Algortako The Piper's Irish Pubean (22:00; sarrera dohainik) Scach folk taldearen kontzertua iragarri dute, bezperan ospatzen dute irlandarrek nazio jai egun nagusia (mar-

txoak 17) eta horregaz bat egiteko asmoz antolatzen du urtero, irlandar kutsuko taberna algortarrak, jai giroko emanaldiren bat.

Bestalde, KulturLeioak kontzertu benetan berezia antolatu du hilaren 19rako, (22:00; sarrera: 9 euro). Topagunea Ambigu gunea izango da (Leioa) eta Belgikako La Fanfare du Belgistan taldearen “ijito edo buhame jazz” ezagutzeko aukera egongo da: Balkanetako ijito melodiek metalakaz bat egiten dute taldearen doinuetan, eta horiekaz nahasten dira Afrika Iparraldeko perkusioa, jazzaren bat-batekotasuna, soinu arabiarak eta afrobeat-aren eragina. ○

Jazz jaialdia > Pointes-en diskoa

Getxoko Jazz jaialdiaren antolatzaile udalerriko Kultur Etxeak, urtero egin legez, jaialdiaren Talde Lehiaketako irabazlearen diskoa kaleratu du. Iaz talde gazte onenaren saria (3.000 euro eta diskoa grabatzea) Txekiar Errepublikako Points taldeak jaso zuen eta hala, Gaztelupeko Hotsak disketeko jazz eremuko Errabal zigiluak argitaratu du laukotearen lana. Pragako Jaroslav Jezek kontserbatorioko jazz arloko ikasleek eta graduatuek osatzen dute 2007ko udabarrian sortu zen Points taldea eta plazaratu barri den diskoak Getxoko jaialdian eskaini zituzten emanaldi bietan grabatutako 6 kanta batzen ditu.

Informazio gehiago: www.hotsak.com

2. edizioa > Lluvia, Hierro y R&R

Laster agortu zen Alvaro Heras getxoitar musikariak lehenengo informazioa bilatu, ikertu, batu, argazki zein horma-irudiak aukeratu, gero alkarriketak egin eta paperatu, dena idatzi, egituratu eta azkenik liburu euskarrian bere poltsikoak autoekoiztiko (inongo erakunderen laguntza barik) “*Lluvia, Hierro y Rock&Roll. Historia del Rock del Gran Bilbao 1958-2008*” lanaren lehenengo edizioa. Bilbo ingurua, Ezkerralde zein Uribe Kostan (batez ere Getxo) azken 50 urteotan egondako rockaren bizitza batzen eta kontatzen duen lan horren bigarren edizioa plazan dago daborduko.

Informazio gehiago: www.myspace.com/historiarockbilbao

diskoak

J. Bidaurrearen eskutik
Gasteiz Big Band
Gaztelupeko Hotsak



Live in Najera argitaratu zutenetik hile bira dator binilo barri hau, Gasteiz Big Band, Jimmy Bidaurrearen eskutik. Lau piezak osatzen dute oraingoa, disko luzea kaleratu bitartean beraien musikaz gozatu ahal izateko. Bidaurretak berak gidatzen duen Dantza Baltza bildumako hirugarren lana da diskoa, Gaztelupeko Hotsakena.

La alegría de molestar
Memo
Gor



Nafar taldearen ohiko estiloaren barruan dago 2009 amaieran ateratako lana: “*Malabarismo musikalen ausentzia taldearen puntu indartsuei lekua uzteko: hitzak eta melodiak*”. Punka, monarkia, mugak edota gurasoen eta seme-alaben arteko harremanei buruzko kantuak, “*zuzenak, zentzu ironikoan eta umoretsuan*”.

Habana Sessions
K. Junkera/ R. Luna
Hiri Records



Hil honetan aterako da trikitilari bizkaitarren azken lana. Buena Vista Social Clubeko Rolando Luna kubatar pianistagaz batera jotzen du eta *Provença Sessions* lana osatzera dator, Fandango egitasmoaren lehen diskoa. Kuban grabatu zuten bere osotasunean, iazko apirillean. Junkerak konposatutako kantuen 11 zati dira, lehendik ezagunak.



Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau aurkezten baduzu
%50eko deskontua
izango duzu zure autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER AGENTZIA OFIZIALA

Vilamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telleke 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[liburuak]

Ipuin Erotikoen lehiaketa

Euskarabila elkartearen ekimenean lanak aurkezteko aukera **apirilaren 23ra arte**

Basauriko Euskaldunon Elkarteak, Euskarabilak antolatzen duen Ipuin Erotikoen lehiaketa martxan da. Elkartea sortu zen urte-tik abian da ekimena eta aurtengoa XV. ekitaldia da. Antolatzaileen esanetan, "literaturzaletasuna bultzatzeko asmoz jaio zen eta garai hartan erotismoa euskaraz onaindik gehiegi jorratu gabeko esparrua zelakoan, euskaldunon artean lehiaketa desberdina eta berritzailea planteatzea erabaki genuen".

Aurkeztuko diren lanak argitarabakoak eta euskarazkoak izan behar dute eta aurkezten dituztenak 16 urtetik gorakoak. Ipuin erotikoen luzerak 2 eta 10 orrialde bitartekoa izan behar du eta aurkezteko azken eguna apirilaren 23a izango da. Lanak posta

«Maiatzean egingo den ekitaldian 1.250 euro banatuko dituzte sarietan»

elektroniko bidez (behean adierazten den helbidera) edo posta arruntez (Euskarabila Elkarte, 146 p.k.; 48970 Basauri) helaraz daitezke. Sari banaketa maiatzean egingo dute: lehenengo saria 600 eurokoa, 2. saria 400 eurokoa eta udalerriko onenarentzako saria 250 eurokoa. Hala sariok nortzuk lortuko dituzten erabakiko duen epaimahaia hurrengoek osatuko dute: Rafa Ugalde, Uxue Alberdi eta Harkaitz Zubiri. Amaitze-



Lehiaketa iragartzen duen irudia

ko, saritutako lanak Euskarabila eta Txalaparta argitaletxearen esku lotuko dira eta argiratuak izateko aukera ere bai; aurreko ekitaldietakoakaz, liburu bi kaleratu dituzte, *Bero Hezeak* eta *Basagurina* (Txalaparta).

Goiargiaren bila dabilenarentzat gomen-dagarria izan liteke urte hasieran Igor Estan-konak, Josune Muñozek eta Edorta Jimenezek antondutako *Desira plazer*. 68-08 (Txalaparta) euskal poesia erotikoen antologia; bertan batzen da eta (1968tik 2008ra) azken 40 urteotako euskarazko poema "beroenen" hautaketa. ○

Informazio gehiago:
www.euskarabila.org/dok/ipuinErotikoak15.pdf
euskarabila@topagunea.com

liburuak



Autokarabana
Fermin Etxegoien
Pamiela

Lehen eleberrri honetan bere bizipenetan oinarritutako istorio errealista aurkeztu du Etxegoienek. Protagonistak kooperatiba batean egiten du behar eta familiako zein fabrikako bizipenak kontatuko dizkigu. Modernitatearen metafora gisa erabiliko du autokarabana.



Izarren artzaina
Josu Waliño/Maite Gurrutzaga
Txalaparta

Magiaz betetako umeentzako istorio heldua. Jota petraldu da gerraren ondorioz eta ama-alabak beldurtuta ditu. Izarrek (alaba) Daniel, izarren artzaina, ezagutuko du eta honek ametsak duten garrantziak eta indarrak egingo dio berba, betetzeko sortu baitira ametsak.

[kirola]

Iñigo Iurrettagoiena > kirolari abenturazalea

"Erronka gogorra da, azkeneko helmugara heltzea ez legoke txarto!"



Erronkarako (ia 4.000 euroko aurrekontua behar du) hainbat erakunde eta babesleren laguntza jaso du

Iñigo Iurrettagoiena (Getxo, 1978) aurtengo Marathon des Sables munduko lasterketa gogorrenetakoan parte hartuko duen euskaldun bakarra izango da. "Abenturazalea naiz eta aurretik ere gauzatu izan dut horrelako proba gogorrik, baina maratoni honetan izena emon, hasieran ez ninduten onartu, eta baietza jaso nuenean bertoko norbait joango zen galdetu nuen, batera joateko, gauzak antolatze-ko, entrenatzeko e.a. Bakarra nintzela esan zidatenean..." adierazi du harriritua eta apur bat beldurtuta getxoztarrak. Besteak beste aurreko urteetan ondorengo probak edo ekimen gaitz eta neketsuak gauzatu ditu eskalatazailer, mendigoizale, eta korrikalariak: Mount Kenya (4.985m; 2005), Kilimanjaro (5.890 m; 2006), Botnia Golko (Finlandia) izoztutik 90 km-ko ibilbidea (2007), Aconcagua (6.962m; 2008), Elbrus (5.642m; 2009) e.a.

Saharako basamortuan, Maroko eremuan, apirilaren 2tik 12ra egingo den XXV. Marathon des Sables lasterketa 6 etapatan banatzen den ia 250 km-ko ibilbidea da. Korrikalari bakoitzak aldean eroan behar du bitarte horretan bizirauteko beharrezkoa

duen guztia: janaria, hori prestatzeko eta lotarako ekipamendua, arropa, argia, botikina e.a.; antolatzaileek ura eta osasun-babesa baino ez dute eskaintzen. Etapa bakoitza betetzeko denbora-muga ezartzen dute, hortik kanpo heltzen dena lasterketatik kanpo lotzen da. Horrez gainera, eguraldiaren gogortasuna eta desertuko muturreko klima (egun 40 gradutik gora, gau 0 azpikotik) ere ezin ahaztu.

«Saharako basamortua, apirilaren 2tik 12ra, 10 kg-ko motxila aldean, 250 km...»

Erronka pertsonal gogorra da, era berean "ederra eta ahaztezina" dela diote parte-har-tzaileek, eta fisiko sasoi-sasioan eta oso ondo prestatuta egon behar badute ere, buruak ere ezin du huts egin. Iurrettagoienak dioenez, "lasterketa egiterako 3 hile prestatzen emonak izango ditut, egunero 3 ordu edo jarduten dut; baina, burua prestatzearena gaitzagoa da... Erronka amaitzea, azkeneko helmugara heltzea ez legoke txarto!". ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

KANTXA KIZOL moda



350 M²

KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / Tf. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 - ALGORTA

John Andueza > *Simplemente* dokumentalaren zuzendaria

“Helburua: dantza taldearen eta down sindromea daukatenen barri ematea”

Telebista aurkezle eta gidolari izan da John Andueza arrasatearra. *Trikitraka trikitron* telebista saioko zuzendari dabil, eta denbora egin du *Simplemente* dokumentala grabatzeko. Ez da nolana hiko lana, Uribe Kostako hainbat lagun ditu protagonista, *Despertar los sentidos* dantza taldeko lagunak; down sindromea daukate eta bere esperientziaren barri ematera datoz.



Martxoaren 28an, Bilboko Arriaga Antzokian ikusi ahal izango da *Simplemente* dokumentala

—Dokumentala aurkeztu barri duzue, zer kontaktzen du?

—2001ean Leioa inguruan dantza talde bat sortu zen, *Despertar los sentidos* izenekoa. Besteak beste, Bilbo, Algorta edota Neguriko hamar bat neska-mutilek dantzatzeko dute. Beren ezaugarri nagusia da, artista galantak izateaz gain, down sindromea daukatela. Sara Ramirez ardurapean egiten dute dantzan. Haien barri orain hiru urte izan genuen ikusentzunezkoen munduan gabiltzan talde batek. Dantza taldearen eta protagonisten historia kontatzeko aukera polita zela konturatu ginen. Horiekaz eta beren familiakaz harremanetan jarri ginen, baita Saragaz ere. Danon artean erabaki genuen aurrera egitea. Dokumentalak kontaktzen du taldearen ibilbidea, batez ere, hamar protagonisten ezaugarriak, beren egunerokoa, bizitza ikusteko modua...

—Nondik dator ideia?

—Beno, zoritxarrez pobreak gara, umillak eta apalak; hau da, ez geneukan sekulako produkzioa egiteko aukera. Horrelakoetan hankak lurtean egin behar da apustua. Talde osoa elkartu eta Kantabriako kanpin batera joan ginen

hamabost egunez, alkarregaz biziz, eta protagonistak dantza emanaldi oso berezia prestatu. Argumentuak horiek izango zirela erabaki genuen. Aste biz grabatu genuen eta irudiok muntatu ondoren, azkenean dokumentala osatzeko. 2007ko udan izan zen.

—Zein duzue helburua?

—Batetik, taldearen barri ematea, aspaldi dabilta lanean eta merezi dute, gizar-

neak bete gura ditugulako, jendea erakarri; azken helburua da jendeak ondo pasatzea, disfrutatzea. Horiek dira helburu nagusiak: taldearen eta gure lagun hauen barri ematea, eta bide batez, zine produktu egokia egitea.

—Zer kontaktzen dute protagonistek, eta nola?

—Denetarik kontaktzen dute, aspaldian egin den modurik ezberdinean, nor-

“Denetik aipatzen dute, maitasuna, sexua, down sindromea, nola bizi duen down sindromedun batek egunerokoa...”

teak beren barri izan dezan. Helburua ere, bide batez, down sindromea daukatenei buruz hitz egitea, baina modu oso desberdinean, modu oso naturalean, eta ikusleei kontatzea hor daudela, eta zein apartak izan daitezkeen, beren berezitasunean zein aberatsak. Bestetik, dokumental ahalik eta txukunena osatzea, zi-

malean umore klabea. Oso alaiak dira eta bereziak, baina bereziak pasatzen diren lekutik guztiak konkistatzen dituztelako. Orduan sortzen diren perlatuak, ezinezkoak lirateke beste modu batean; hau da, gainontzeko pertsonen artean nekez lortzen diren uneak sortu dira, naturaltasuna delako oinarria. Horixe

da beren aberastasunik handiena eta gure lanari eman dioten oparirik handiena. Denetik aipatzen dute, maitasuna, sexua, bikote harremanak, gizartea, down sindromea zer den, nola bizi duen down sindromedun batek egunerokoa... Eguneroko une asko eta filosofia asko. Une hunkigarri eta emozionanteak sortu dira, negar egiteko gogoia ematen dutenak, baina beste askotan, benetako komeria. Estreinatua denean ikusleek zer barre egin duten ikusi besterik ez dago, eta protagonistei esker.

—Dantzak zer garrantzi izan du?

—Asko, dantzak dokumentala biltzen du. Ezin zitekeen izan sekuentzien konkatazio hutsa, borobila izateko argumentu nagusia behar zuen; hori da dantza. Kanpinera ez doaz oportetara bakarrik, enkargu batez gain, baizik: Oriñoneko hondartzan emanaldia

antolatzea. Jende asko eramatea lortu behar zuten, hutsetik hasita. Hori dena ikusten da, nola prestatzen duten dena, nola entsetzen duten, zein publizitate kanpaina autentiko eta estratosferikoa egin zuten jendea erakartzeko... dena. —Eta nolako esperientzia izan da eurentzat zein lan-taldearentzat?

—Non ikus dezakegu?

—Donostian estreinatua genuen, antzokia bete zen. Iruñean ere eskaini dugu, Arrasaten eta Gasteizen. Martxoaren 18an, barriz, Santanderren aurkeztuko dugu, eta 28an, Bilboko Arriagan. Promozio honen azkena izango da, baina hasiera besterik ez. Enpresa han-

“Lan-taldearentzako ez da lana izan, plazerra baizik; bizitzak egin digun oparia”

—Eurentzako uste dut ederra eta zoragarria izan dela, luzaroan gogoratuko duten esperientzia. Guretzako, barriz, eta uste dut lan-talde gehienak nigaz bat egingo duela, seguruenik bizitzako esperientziarik ederrenetako, diferentea, eta plazerra. Ez da lana izan, plazerra izan da, bizitzak egin digun oparia.

dien babesik ez dugu, jendea erakarri eta horiek gure enbajadore izatea lortu behar dugu, lana promozionatzeko eta zinemetan eskaintzea lortzeko. Izan ere, Bilbo eta gero, dokumental honek ibilbide komertziala hasi dezan da asmoa, Euskal Herriko ahalik eta herri gehienetan ematea eta jendeak disfrutatzea. ○

Javi Onaindia > Saratsaga

“Estarta horietan zehar ibiltzeko aholkua: zentzumena eta birrikak zabalik eroan”



“Herri honen iraganaz eta izaeraz asko erakusten digute: zapi, txapel eta abarkadun Getxo hain zuzen ere”

Esaera baten arabera ahuntzak mendirako joera izaten du eta niri ere halako zerbait gertatu zait Getxon. Baseri herritik heldutakoa naiz eta Getxoren alde horrek hasiera-hasieratik harrapatu ninduen, Andra Mari eta Azkorriko estartek hain zuzen ere. Urrun joan barik ibilaldi lasiak egiteko eta Getxoren beste ikuspegi bat hartzeko gomendagarriak: Martiturri, Muru, Uri, Tosu, Saratsaga...

Herri honen iraganaz eta izaeraz asko erakusten digute: zapi, txapel eta abarkadun Getxo hain zuzen ere. Alde horretan ikus daiteke herri hau ez dela bakarrik

itsasoa, hondartza, kirol-kaia, aberastasuna eta oparotasuna. Estarta horietan bizi dira oraindino aspaldiko baserrietxe eder eta ikusgarri batzuk, soroak, ortuak eta ganadua. Askorik ez baina lagina bai, Getxo baserriaren azken aztarnak. Era berean kontrastea da nagusi estarta horietan: sustraiak galduz doan baserri mundua eta loratuz doazen egungo erai-kin moderno-modernoak alkarren ondoan. Alkarren etsai?

Estarta horietan zehar ibiltzeko aholkua: zentzumena eta birrikak zabalik eroan. Ikusi sasoiaren sasoiak koloreak, zein iraganaren eta orainaren

arteko kontrasteak; entzun isiltasuna, zein naturaren soinu gozagarriak; hartu baserri-berdeguneari dagozkion usainak, ederrak nahiz higuinarrak, baina naturalak guztiak; ukitu bide bazterretako zuhaitzak, landarak eta abereak (kontuz azken honek!); dastatu bertoko baserriaren bati erositako genero ederra, ortutik ataratak. Zentzumena eskertuko dizute ibilalditxo.

Zabaldu birrikak eta hartu arnasa sakon. Egun batzuetan eguneroko zurrumbiloan sartzeko indarra eta patxada hartuko duzu etxe ondo-ondoan. Eta ahalik eta ondoen zaindu ingurua, merezi du eta. ○

The Willows Tea Room

Ingalaterrako ohiturak, pastak eta tea



Joanna Eguiraun eta Saioa Portillo, The Willows Tea Room-en

Sustrai britainiarrek ditu Joanna Eguiraunek, ama bertakoa baitu. Lora-tegian zume negarti ederra zuen etxe batean jaio zen; horregatik, zumea aukeratu du Areetako Mesedeetako ama kalean zabaldutako te aretoaren ikur bezala. Rosario Ustara eta Adriana Sena bazkideak batera zabaldutako Eguiraunek The Willows Tea Room: “Urtero joaten naiz Ingalaterrara; ohiturak eta kultura oso gustuko ditut. Bertako produktuak eskaintzen zituen lokala zabaldutako gura nuen; urte biz proiektua diseinatzen ibili naiz, eta azkenik, abenduan zabaldutako gura nuen”.

Gosariak, hamaiketakoak, askariak eta koktelak egiten dituzte: “Gosaltzeko saltxitxak, arrautz nahasiak, ogi txigortuak eta tea, Ingalaterrako gosari tipikoa”. Pintxoak ere badituzte: “Beste

tabernetatik bereizteko, pintxo originalak eskaintzen saiatzen gara”.

Te aretoan bertan, lehengai naturalak egindako galletak, marmeladak eta bestelakoak saltzen dituen dendatxoa ere badute: “Ingalaterran erabiltzen diren produktuak ditugu salgai, curry-a, eta gaztak adibidez”. Eskaintzen dutenaz gain, giroari ere ukitu ingelesa eman diote: “Otsailean Alicia en el pais de las maravillas liburuan oinarritutako jaiak egin genuen; horrelako gehiago egiteko asmoa daukagu”.

Pentsa baino te zale gehiago aurkitu dituzte The Willowseko lagunek: “Anglofilo asko dago inguru honetan; kafea nagusi izan bada ere, azken urteetan te kulturak gogor jo du”. ○

Mesedeetako ama 28, AREETA
Tf. 94 657 99 39

AR-TAZA ETXEA
JATETXEA

- gosariak
- txuletak
- bakailoa
- arrain freskoa

esteburuetan bekarri eta afariak eukarguz
Erreserbak: 94 463 03 92
Arta Etxea Erakina Gobierna enkaizaren sarean • UDOA

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA

KONTXI
ZUÑZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituko gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gazaietatik!

Alangobarri 30, ALGORITA
Tf. 94 491 02 93

GOZOLABEA
GALDARETXE

- Maidagan 35, GETXO Tf. 94 491 11 25
- Mayor 17, AREETA Tf. 94 464 77 29
- Sabino Arana 67, LEIOA Tf. 94 464 46 56
- Teletxe 11, ALGORITA Tf. 94 480 32 14
- Sabino Arana 9, SOPELA Tf. 94 616 11 01

Toponimoa > Saratsaga

Saratsaga (etxea/auzoa/estarta):

Etxe izen honen osagaiak sarats zuhaitz izena eta -aga atzizkia dira. Nahiz eta euskal ahoskera argia den eta jendeak satza edo horrelakoak esan, Getxon zein Gortzen erdaraz Sarachaga grafian finkatu da. Gertaera honen arrazoia gaztelaniaz -ts- irudikatzeak ikurrik ez izatea da. 1946an baserri honen egoeraren salaketa egin zuten. Salaketaren arabera habitazina zen. Baserri honetan maizter bizi ziren familia batzuek denbora oso laburrean hiru seme-alaba galdu zituzten tuberkulosia zela eta. Aldi berean, arazo normalak ere planteiatzen ziren, nahastuta bizi omen zirelako sexu bietako adin nagusiko pertsonak. (jarraitzen du)

BASALBO BASERRIA

JATETXEA

Tf./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbo@basalbobaserria.com



ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Amiluze z.g. • TEA Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

María Jesús
ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA
Alangobarrí 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA **HARTU TXANDA**

GOIZEAN
"Gozaki eta prentsa, gubi denik ez pentsa"
Prentsa - Fruin lehorak - Aldizkariak - Lincarrariak
Orduña Mendatea 1 Tellebxe 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA

Usategi kafetegia

Usategi parkea z.g. Algorta
*Tf. erroerak: 94 460 64 13

[horoskopoa]

<p>URA  (Abenduak 21 urtarrilak 19) Ingurukoen eragin txarretik urrundu, ez zaitetz ergela izan, ekaizta dagoenean onena porturako bidea hartzea izaten da. Lagunak hobeto aukeratu behar zenituzke.</p>	<p>OTSOA  (Urtarrilak 20 otsailak 18) Maitasunari dagokionez, aukerak soberan izango dituzu. Unea aprobetxatu, hori baino ez duzu egin behar. Lagunen batek sekreturen bat gordetzeko eskatuko dizu.</p>	<p>ADARRA  (Otsailak 19 martxoak 20) Lagunak azmo barriak aurrera ateratzea merezi du, ondo ateratzeko aukera handiak daude eta. Zure gehiegizko jardueren arteko oreka lortuz gero, ondo ibiliko zara.</p>
<p>AITZURRA  (Martxoak 21 apirilak 19) Gaizki ulertuek ondorio latzak ekar ditzakete; erne zure bikoteagaz, harremanak txarrra egin dezake eta. Baztertu zurekoikeria hori eta gauzak bere onera etorriko dira.</p>	<p>HOSTOA  (Apirilak 20 maiatzak 19) Lanpetuta, baina oso lanpetuta ibiliko zara eta horregatik lan mailan aurrera egiteko aukera izango duzu. Halere, arrakasta ekonomiko hori inor mindu barik lortzen saiatu beharko zenuke.</p>	<p>EGUZKIA  (Maiatzak 20 ekainak 18) Harremanetarako aldi egokia dator. Maitakor sentitzeko joera izango duzu eta zure lagunarekiko harremanak igarriko du, onerako jakina.</p>
<p>GARIA  (Ekainak 19 uztailak 18) Lasaitasuna behar duzu. Emozio handi horien atzetik ibiltzek ez dizu ezer onik ekarriko, akaso disgusturen bat edo. Hurbil daukazunari egiozu jaramon gehiago.</p>	<p>LASTO  (Uztailak 19 abuztuak 17) Zure bizitza aldatzeko gogoia sentituko duzu, batez ere maitasun kontuetan. Baina ez pentsa bikote aldateta batek gauzak bere onera ekarriko dituenik. Arazoa zuzan daukazu.</p>	<p>IRATZEA  (Abuztuak 18 irailak 16) Utebako gertaera batek lur jota utziko zaitu, baina halere, lasai egon, susto bat besterik ez da izango eta. Osasunetik makal zabilta, indarge. Kirol apur bat egiten has zaitetz, hobeto sentituko zara.</p>
<p>META  (Irailak 17 urriak 16) Oso apal eta larri sentituko zara. Beharbada zure buruagaz apur bat ahaztu beharko zenuke eta ingurukoengan arreta handiagoa jarri, merezi dute eta.</p>	<p>HAZIA  (Urriak 17 azaroak 15) Beti aurkako iritziak botatzen, honezkerok lagunak aspertuta dituzu. Martxa honetan segituz gero, zure aurkako boikota antolatuko dute; baina erremedioirik ez duzula ematen du.</p>	<p>NEGUA  (Azaroak 16 abenduak 20) Familiagaz arazoren bat dator. Horren ondorioz, larri eta haserre egongo zara, baina ez luzaroan. Lagunak ere badituzu, eta beharbada, hortxe aurkituko duzu arazo horri aurre egiteko laguntza.</p>

Koskakideak behar ditugu irratia aurrera jarrai dezan!!

Izena..... Deiturak..... Hertia.....
E-mail..... Telefonoa.....

Kontu zenbakia (20 digito)
□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□

12€ urtean €1 hilean !!
koskairratia@koskairratia.com
k/ Amexiti 6 4.pisua 2. dep.
Algorta (Bizkaia)
www.koskairratia.com

KOSKA
irratia 108 FM

Bidali zure datuak posta elektronikoko edo posta arrunt bidez



HITZ GURUTZATUAK

EZKER ESKUIN:

- [1] Ipar Amerikan eta Erdi Amerikan bizi den otsoaren antzeko animalia, txikiagoa baina.
 [2] Adimen zorrotzekoak, azkarrak.
 [3] Valentziako plater tipikoa, arroz ez egina.
 [4] Hutsa. Buruaren alboko alde.
 [5] Bizkaieraz iratzea. Tokiko atzizkia.
 [6] Uztai, arranbel. Lehenengo bokala.

GOITIK BEHERA:

- [1] Oilasko zikiratua.
 [2] Euskara zaharrean, zakurra. Kontsonante bikoitza.
 [3] Apoaren antzeko ur-lehortarrak.
 [4] Oilarraren eme. Bokala.
 [5] Elkar jotzea.
 [6] Seigarren hilabetea.



	1	2	3	4	5	6
1						
2						
3						
4		■				
5				■		
6					■	

ez horren gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Zein da *Simplemente* dokumentaleko protagonista den dantza taldearen izena?

> Aurrekoaren erantzuna: NUN taldea

> Irabazlea: **Miren Kareaga***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

Zein da *Erretratu ataleko elkarrizketatuaren ogibidea?*

- **Pailazoa**
- **Malabarista**
- **Zapataria**

> Aurrekoaren erantzuna: Miren Amuriza

> Irabazlea: **Ez da egon irabazlerik***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

SARIA **Usategi**
kafetegia

Usategi parkea z.g. Algorta
Tf. erreserbak: 94 460 64 13



SARIA **La Gusana**
liburudenda

Tellagorri plaza, Algorta
Tf. 94 491 14 12

lagusana

Bidalari erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



JAVIER INTXAURBEK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

ERANDIO GOIKOAKO DANTZA TALDEA, 1950

Talde honek ez zuen izenik, eliza taldea zen, Andra Mari elizako orduko "Accion Catolica" k sortutakoa. Genaro Goikoetxea eta Juanxu Barrueta dantzariak arduratzen ziren funtzionamenduz. Gehienbat Erandioko udalerrian izaten zituzten ekitaldiak (argazkia horietako egun batekoa da). Parrokiako Mariano abadea larrabetzuarra zenez, Larrabetzuko Goikolexaldera joan ziren urte batzuetan bertako jaietan. Talde hau, 1965ean sortu zen "Goi-Alde" dantza taldearen oinarria edo da; eta horretan, "Goi-Alde" ren sorreran, beste batzuen artean, argazkian dauden Intxaurbe anaiaen lana azpimarratu behar da. o

Atzealdean: txistulari biak; bata Andoni Lekunberri da.

Mutilak: Guillermo Dobaran, "Kasi" Zarraga, ??, Genaro Goikoetxea, "Kotxelu" Intxaurbe, Juan M. Arrigoitia, Koldobi Etxeberria, Jon Egaña, Euren Lartategi, Ignacio Zarrakonandia, Jose M. Jimenez, Sabin Agirre, Julio Agirre, Juan A. Esparta, Javi Intxaurbe, Juanxu Barrueta, Jose M. Oleaga, Juan I. Galdospin.

Neskak: Maria Jesus Goikoetxea, Mari Carmen Llona, Marini Bilbao, Nekane Aranaga, Josune Madariaga, Maria Jesus Fernandez, Maria Jesus Basarrate, Mari Carmen Barrenetxea, Maria A. Zaldibar, Rosa Mari Atxalandabaso.

*Oharra: Aurreko alean (Portuko mojen ikastetxea, 1940) falta zen:

6. Ierroa: Sabin Urrutia, Leon Limia, Angel Aparicio, Angel Mentxaka, J. Antonio Mentxaka, Jon Nicolas, Javier Zubiaga, Joseba Cortina.

OIHAN VEGA > musikaria eta aktorea

“Parrandarik politenak? Bilbon, unibertitate garaiko ostegunetan”

Testua: **Zuberoa Iturburu** Argazkia: **EITB**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Langilea eta burugogorra.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

La vida de Brian filmean, komediarik onena delako, eta sarkastikoa.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?

Suposatzen dut futbolari, txikitan guztiak izan gura zuten, baita neuk ere.

Zerk ematen dizu beldurra?

Beharbada istripu larriren bat izan, eta gorputzaren parte bat edo funtzio bat galtzea, edo horrelako zerbaitek.

Barriz egingo zenukeen bidaiarik badago?

Paris, seguru. Gehien gustatu zaidan hiria da.

Zein da zure ametsetako bat?

Oraingoz amets guztiak betetzen ari naiz, egia esan. Beraz, suposatzen dut helburuak betetzen joatea eta zoriontsu izatea.

Eta gehien gorroto duzun topikoa?

Beti maiteko zaitut esaten denean, gehienetan gezurra izaten delako.

Zer barik ezin zaitezke bizi?

Musikarik barik. Nire bizitzaren parte da, haren inguruan nabil lanean eta musikaria ere banaiz; gauza asko ematen dit musikak.

Eguna ala gaua?

Gaua. Arratsalde partean espabilatuago egoten naizelako eta juergarik onenak gauean egoten direlako.

Parrandarik politenak non?

Bilbon, unibertitate garaiko ostegunetan, zalantzarik gabe. Gauza berriak probatzeko garaia izan zen, esperientziaz beterikoa.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?

Aizkorri. Txikitan joaten nintzen gurasoekin eta buruan geratu zait paraje hura, oso polita da gainera. ○

LABURREAN— Azkenaldian euskara ikasten laguntzeko saioan dabil lanean Oihan Vega bergararra, ETBn. Kerman pertsonaia antzezten du *Kerman, mintzalagun bila* programan. Baina aktorearena ez da bere “*lanbile naturala, azken orduko kontua baizik*”, eta bera ere ez da barria etxe horretan. Gazteaklip saioan ere badabil aurkezle eta Gaztea irratian DJ. Ez da ibilbide makala 28 urte izateko. Ikusentzunezkoak eta publizitatean lizentziaduna izan arren, nabari da musikari lotuta bizi dela. Gazteko lanaz gain, Belceblues taldean dabil bateria jotzen. Iragan hilaren 27an Astrabuduko kultur etxean ikusi genituen, *blues* musikari buruzko kontzertu didaktikoa eskaini zuten.

EUSKARA, MERKATARITZARA ZERBITZU-GUTUNA



ERROTULUA IPINTZEKO DIRU-LAGUNTZAK

Errotuluak, olanak eta ibilgailu komertzialak euskara hutsez edo euskaraz eta gaztelaniaz jartzeko dirulaguntzak.

ITZULPEN ZERBITZUA gehi@getxo.net

Urte osoan eta doan. Zure kartelak eta idatziak euskaraz edo ele bietara, zuk nahi duzun bezala.

MAKETAZIO ZERBITZUA

Zeuk aukeratu kartela egiteko gehien gustatzen zaizun diseinua eta paper-tamaina. 10 paper-diseinu aukeran.

“DENDAKETAN” EUSKARA IKASTARO LABURRAK

Bezeroei arreta euskaraz egiteko 60 orduko ikastaro laburrak.

EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZAK

Baldintzak betetzen dituenari Udalak matrikularen %100 itzuliko dio.

MATERIAL SORTA INTERESGARRIA

Euskaraz edo ele bietan eta DOAN. “Zabalik/Ibota”, “Merkealdia”, “Eskaintza bereziak”, “Erreklamazio-orriak eskuragarri”, “Gabonetako loteria”, “Udako ordutegia”, “Oporretan gaude”, inprimakiak (fakturak, ordainagiriak...).

EUSKARA BIZI

HEMEN ERE EUSKARA BIZI leloa duten mahai-gaiekoak, kartelak...

HIZKUNTZA AHOLKULARITZA

EGIN ZURE ESKAERA



94 415 22 52



gehi@getxo.net



Bi hizkuntzetan lan
egiteko gai izan
nahi duzu?

Prestakuntza euskaraz
jarraitu nahi duzu?

Gurasoei esan
D ereduan ikasten
jarraitu nahi duzula

Etorkizuna
irabazi
nahi duzu?

NAHI! DUDALAKO!

Lana
errazago
topatu
nahi duzu?

Lanik gogokoena lortu
nahi duzu?

Sari itzelak irabazi (Play Station, Ipod, mp3...)
eta informazio gehiago jasotzeko
Sartu zaitetz

www.nahidudalako.com

Zergatik ez? Nahi dudalako!

